BIZKAIKO FORU ALDUNDIAREN FORU DEKRETUAREN PROIEKTUA, Emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan proiektu eraldatzaileak egiteko dirulaguntzen oinarri arautzaileak eta deialdia onartzen dituena.

PROYECTO DE DECRETO FORAL DE LA DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA por el que se aprueban las bases reguladoras y convocatoria de las subvenciones a la realización de proyectos transformadores en materia de igualdad de mujeres y hombres.

Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko Saileko Berdintasunerako Zuzendaritza Nagusiaren helburu estrategikoen artean, emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzea dago. Horretarako, beharrezkoa da administrazioaren eta lurraldean esku hartzen duten gizarte-eragileen arteko lankidetza estua sustatzea.

La Dirección General para la Igualdad del Departamento de Empleo, Cohesión Social e Igualdad tiene entre sus objetivos estratégicos la promoción de la igualdad de mujeres y hombres. Para ello, considera necesario promover una estrecha colaboración entre la administración y la diversidad de agentes sociales que intervienen en el territorio.

Gizartea eraldatzeko edozein prozesuk, balio eta jarreretan, gizarte-egituran eta -antolaketan aldaketak eragiten baditu, administrazioaren eta gizartearen arteko lankidetza estua behar du. Ildo horretan, emakumeen elkarte eta erakundeek, eta Lanbide Heziketako ikastetxeen elkarteek (guztiak ere irabazi-asmorik gabekoak) zeregin garrantzitsua dute zuzentzen ari garen gizarte-aldaketan.

Cualquier proceso de transformación social que conlleve cambios en valores y actitudes, en la estructura y organización social, requiere de una estrecha colaboración entre la administración y la sociedad. En este sentido, el trabajo de las asociaciones y organizaciones de mujeres, y las asociaciones de centros de enseñanza de Formación Profesional, todas ellas sin ánimo de lucro, adquiere un protagonismo esencial en el cambio social hacia la igualdad.

Horretarako, beste tresna batzuez gain, Berdintasunerako Zuzendaritzak badu dirulaguntzen lerro bat, berdintasun-politiken arloko aurreko estrategien oinordeko dena, eta azken urteotan garatu dena emakumeen ahalduntzea eta desberdintasunen ikusgarritasuna bultzatzeko, rolak eta estereotipoak gainditzeko, eta abar.

Para ello, además de otros instrumentos, la Dirección de Igualdad cuenta ya con una línea subvencional, heredera de estrategias anteriores en políticas de igualdad, que se ha venido desarrollando en los últimos años buscando favorecer el empoderamiento de las mujeres, la visibilización de las desigualdades, la superación de roles y estereotipos, etc.

Oraindik ere beharrezkoak dira emakumeen elkarteei eta erakunde mistoei zuzendutako dirulaguntzen lerro horiek, baldin eta finantziazio mugatuko jarduera puntualen profil bati erantzuten badiote, baina, gaur egun, alternatiba eraldatzaileagoak aztertzen dituzten beste batzuen osagarritasuna behar da, inbertsio handiagoa eta baliabide sendoagoak behar dituzten ekimenekin, prozesu eraldatzaileetarako bokazioarekin.

Honako hauek dira esku hartzeko hiru ardatzak, gobernu onerako neurriekin batera, Bizkaiko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VI. Foru Planaren (2021-2024) egitura osatzen dutenak, eta hauetan arreta berezia jartzen da: indarkeria matxistarik gabeko bizitzen, ahalduntze feministaren eta berdintasunaren alde lan egiteko garapen iraunkorrean.

Bestalde, sektore eta proiektu eraldatzaileak daude hainbat eremutan, baina, genero-ikuspegirik ez dutenez, desberdintasun-aldeak areagotu ditzakete. Beraz, dekretu honen helburuen artean dago horietan genero-ikuspegia sartzea ahalbidetzen duten prozesuak erraztea.

Horrenbestez, denboren, kopuruen eta eragileen beste aukera batzuk aztertzeko interesak arlo horretako egungo errealitatearen diagnostikoa egingo duten eta ekimenen ahalmen eraldatzailea erraztuko duten berdintasunerako sektore estrategikoetan metodologia eraldatzaileak antolatuko dituzten proiektuei laguntzeko beharra dakar.

Horregatik guztiagatik, Bizkaiko Foru Aldundiak, bere eginkizunak betez, dirulaguntzen oinarriak eta deialdia arautzen ditu, publizitate-, lehia- eta objektibotasun-irizpideen arabera.

Foru dekretu hau bat dator erregulazio onaren printzipioekin. Printzipio horiek Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 2015eko urriaren 1eko 39/2015 Legean ezartzen dira eta Bizkaiko Foru Aldundiaren 2021eko ekainaren 15eko 87/2021 Foru Dekretuaren 3. artikuluan biltzen dira (dekretu horren bidez Bizkaiko Foru Aldundian xedapen orokorrak egiteko prozedura arautzen da).

Oinarri eta deialdi hauek egiterakoan, kontuan hartu

Estas líneas de subvenciones dirigidas a asociaciones de mujeres y entidades mixtas que responden a un perfil de actividades puntuales con una financiación limitada, siguen siendo necesarias, pero requieren actualmente de la complementariedad de otras que exploren alternativas más transformadoras, con iniciativas que requieran de una mayor inversión y recursos más sólidos, con vocación de procesos transformadores.

Son tres los ejes de intervención que, junto con las medidas para el buen gobierno, conforman la estructura del VI Plan Foral para la Igualdad de Mujeres y Hombres en Bizkaia (2021-2024), y donde se fija especial atención: trabajar en favor de vidas libres de violencia machista, el empoderamiento feminista, y la igualdad en el desarrollo sostenible.

Además, existen sectores y proyectos transformadores en distintos ámbitos, pero, al carecer de perspectiva de género, pueden aumentar las brechas de desigualdad. Por lo tanto, este Decreto tiene entre sus objetivos facilitar procesos que permitan incluir la perspectiva de género en los mismos.

De suerte que el interés por explorar otras opciones de tiempos, cantidades y agentes, conduce a la necesidad de apoyar proyectos que realicen un diagnóstico de la realidad actual en esta materia y articulen metodologías transformadoras en sectores estratégicos para la igualdad que favorezcan el potencial transformador de las iniciativas.

Por todo ello, la Diputación Foral de Bizkaia, en ejercicio de sus funciones, procede a regular las bases y la convocatoria de subvenciones bajo los criterios de publicidad, concurrencia y objetividad.

El presente decreto foral responde a los principios de buena regulación previstos en la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, y recogidos en el artículo 3 del Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 87/2021, de 15 de junio, por el que se regula el procedimiento de elaboración de disposiciones de carácter general en la Diputación Foral de Bizkaia.

En la elaboración de estas bases y convocatoria se

da maiatzaren 28ko 63/2019 Foru Dekretuak, Bizkaiko Foru Aldundiaren jarduera-eremuan hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak ezartzen dituenak, xedatutakoa.

ha tenido en cuenta lo dispuesto en el Decreto Foral 63/2019, de 28 de mayo, que establece los criterios de uso de las lenguas oficiales en el ámbito de actuación de la Diputación Foral de Bizkaia.

Arlo horretako eskumenari dagokionez, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Indarkeria Matxistarik Gabeko Bizitzetarako Legearen Testu Bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 4., 6. eta 27.3 artikuluen arabera, Bizkaiko Foru Aldundiari dagokio, besteak beste, emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko jarduerak egiten dituzten elkarteak sustatzea.

En cuanto a la competencia en la materia, de conformidad con los artículos 4, 6 y 27.3 del Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y Vidas Libres de Violencia Machista contra las Mujeres, corresponde, entre otras, a la Diputación Foral de Bizkaia incentivar a las asociaciones a que lleven a cabo actividades dirigidas a la consecución de la igualdad de mujeres y hombres.

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauak 3. artikuluan jasotzen duenez, Bizkaiko Lurralde Historikoko foru-sektore publikoaren jarduera gidatu eta bideratuko duten printzipio orokorrak Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabeko bizitzetarako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 3. artikuluan jasotakoak dira (gaur egun, martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 3. artikuluan).

La Norma Foral 4/2018, de 20 de junio, para la Igualdad de Mujeres y Hombres, recoge, en su artículo 3, que los principios generales que deben regir y orientar la actuación del Sector Público Foral del Territorio Histórico de Bizkaia son los recogidos en el artículo 3 de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres y vidas libres de violencia machista contra las mujeres (actualmente, en el artículo 3 del Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo).

Halaber, 8.2 artikuluan, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Organoaren eginkizunen artean, honako hauek jasotzen dira: erakundeen arteko partaidetza, koordinazioa eta lankidetza, eta ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauaren helburuak lortzeko beharrezkoak diren lankidetza- eta lankidetza-tresnak garatzea, eta Bizkaiko emakumeen mugimendu feministarekin eta elkarteekin harremanak izateko eta lankidetzan aritzeko bideak ezartzea eta koordinatzea.

Asimismo, recoge en el artículo 8.2, entre las funciones del Órgano para la Igualdad de Mujeres y Hombres, las siguientes: la participación, coordinación y colaboración interinstitucional y desarrollo de cuantos instrumentos de colaboración y cooperación sean necesarios para alcanzar los objetivos de la Norma Foral 4/2018, de 20 de junio, y el establecimiento y coordinación de cauces de relación y colaboración con el movimiento feminista y asociativo de mujeres de Bizkaia.

Dekretu hau idaztean, kontuan hartu da Bizkaiko Foru Aldundiaren azaroaren 19ko 141/2013 Foru Dekretuan xedatutakoa. Horren bidez, otsailaren 18ko 4/2005 Legean (gaur egun, martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuan) aurreikusitako generoaren araberako eraginaren aurretiazko ebaluazioa egiteko jarraibideak jasotzen dira.

En la redacción del presente decreto se ha tenido en cuenta lo dispuesto en el Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 141/2013, de 19 de noviembre, por el que se fijan las Directrices en las que se recogen las pautas a seguir para la realización de la evaluación previa del impacto en función del género prevista en la Ley 4/2005, de 18 de febrero (actualmente, en el Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo).

Bizkaiko Lurralde Historikoko foru-erakundeen hautaketari, antolaketari, araubideari eta funtzionamenduari buruzko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauaren 17.1.4 eta 17 artikuluen arabera,

En relación a la competencia del órgano para la aprobación de la disposición, a tenor de los artículos 17.1º. 4 y 17.2º de la Norma Foral 3/1987, de 13 de febrero, sobre Elección, Organización, Régimen y

Bizkaiko Foru Aldundiko Gobernu Kontseiluari dagokio xedapena onartzeko organoak duen eskumena.

Ondorioz, Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko Saileko foru diputatuaren ekimenez, eta Bizkaiko Foru Aldundiak eztabaidatu ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT

**Artikulu bakarra. Dirulaguntzen oinarri arautzaileak eta deialdia onartzea.**
Emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan proiektu eraldatzaileak egiteko dirulaguntzen oinarri arautzaileak eta deialdia onartzen dira, eta horien testua ERANSKINEAN txertatzen da jarraian.

XEDAPEN GEHIGARRIA

**Xedapen gehigarri bakarra. Aurrekontu-zainpeketak.**

Foru dekretu honen arabera eman daitezkeen dirulaguntzak 232114 Programaren aurrekontu-zuzkiduraren kargura egingo dira (0905 organikoa, 451.00 ekonomikoa, 2017/0064 proiektua); guztira, 200.000 € emango dira 2023ko ekitaldian.

AZKEN XEDAPENAK

**Azken xedapenetako lehenengoa. Arauak garatzeko gaikuntza.**
Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko Saileko titularrari ahalmena ematen zaio dekretu hau osatzeko edo garatzeko beharrezkotzat jotzen dituen xedapen guztiak emateko.

**Azken xedapenetako bigarrena. Indarrean jartzea.**
Dekretu hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Funcionamiento de las Instituciones Forales del Territorio Histórico de Bizkaia ésta corresponde al Consejo de Gobierno de la Diputación Foral de Bizkaia.

En su virtud, a iniciativa de la diputada foral del Departamento de Empleo, Cohesión Social e Igualdad, y previa deliberación de la Diputación Foral de Bizkaia

DISPONGO

**Artículo Único. Aprobación de las bases reguladoras y la convocatoria.**
Se aprueban las bases reguladoras y la convocatoria de las subvenciones a la realización de proyectos transformadores en materia de igualdad de mujeres y hombres, cuyo texto se inserta a continuacion en el ANEXO.

DISPOSICIÓN ADICIONAL

**Disposición Adicional Única. Consignaciones presupuestarias.**
Las subvenciones que puedan otorgarse con arreglo al presente decreto foral se efectuarán con cargo a la dotación presupuestaria del Programa 232114, recogida en el orgánico 0905, económico 451.00, proyecto 2017/0064, por un total de 200.000 €, en el ejercicio 2023.

DISPOSICIONES FINALES

**Disposición Final Primera. Habilitación para el desarrollo normativo.**
Se faculta a la persona titular del Departamento de Empleo, Cohesión Social e Igualdad, a dictar cuantas disposiciones considere necesarias para complementar o desarrollar el presente decreto.

**Disposición Final Segunda. Entrada en vigor.**
El presente decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el «Boletín Oficial de Bizkaia»
.

Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko foru-diputatua./ La diputada foral de Empleo, Inclusión Social e Igualdad. MARIA TERESA LAESPADA MARTÍNEZ

Ahaldun Nagusia/ La Diputada General. ELIZABETE ETXANOBE.

ERANSKINA / ANEXO

EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNAREN ARLOKO PROIEKTU ERALDATZAILEEI EMANGO ZAIZKIEN DIRULAGUNTZEN OINARRI ARAUTZAILEAK ETA DEIALDIA.

1. artikulua. Dirulaguntzaren xedea.

Foru dekretu honen bidez, emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan proiektu eraldatzaileak egiteko dirulaguntzen oinarri arautzaileak eta deialdia arautzen dira, zehazki, proiektu berritzaileak eta/edo estrategikoak egitea, garatzen diren eremuarengatik, erabilitako metodologiarengatik eta/edo inplikatutako eragileengatik, betiere helburua emakumeen eta gizonen berdintasunean aurrera egitea bada.

2. artikulua. Erakunde onuradunak.

1. Honako hauek izan daitezke erakunde onuradunak:

a) Bizkaiko Lurralde Historikoko emakume-elkarteek eta irabazi-asmorik gabeko erakundeek, baldin eta honako baldintza hauek betetzen badituzte:
   i. Beren sozietatearen eta zergaren egoitza Bizkaiko Lurralde Historikoan izatea.
   ii. Aurkezten dituzten proiektuak Bizkaiko Lurralde Historikoan garatzea.

b) Euskal Autonomia Erkidegoko irabazi asmorik gabeko Lanbide Heziketako ikastetxeen elkarteak, baldin eta aurkezten dituzten proiektuak Bizkaiko Lurralde Historikoan garatzen badira.

2. Onuraduna pertsona juridikoa bada, dirulaguntza emateko oinarri diren jarduera guztiak edo batzuk lehenengoaren izenean eta haren kontura egiteko konpromisoa duten erakunde onuradunari atxikitako erakundeak ere onuraduntzat joko dira.

3. Foru-administrazioak emandako dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauan xedatutakoa aplikatuz, ezin

BASES REGULADORAS Y CONVOCATORIA DE LAS SUBVENCIONES QUE SE CONCEDAN A PROYECTOS TRANSFORMADORES EN MATERIA DE IGUALDAD DE MUJERES Y HOMBRES.

Artículo 1. Objeto de la subvención.

Mediante el presente decreto foral se regulan las bases reguladoras y la convocatoria de las subvenciones a la realización de proyectos transformadores en materia de igualdad de mujeres y hombres, más concretamente, la realización de proyectos innovadores y/o estratégicos por razón del ámbito en el que se desarrollen, la metodología utilizada y/o los agentes involucrados, siempre y cuando tengan por objeto el avance en la igualdad de mujeres y hombres.

Artículo 2. Entidades beneficiarias.

1. Podrán obtener la condición de entidades beneficiarias:

a) Las asociaciones de mujeres y las entidades sin ánimo de lucro del Territorio Histórico de Bizkaia, siempre que cumplan los requisitos siguientes:
   i. Que tengan su domicilio social y fiscal en el Territorio Histórico de Bizkaia.
   ii. Que los proyectos que presenten se desarrollen en el Territorio Histórico de Bizkaia.

b) Las asociaciones de centros de enseñanza de Formación Profesional de la Comunidad Autónoma del País Vasco sin ánimo de lucro, siempre que los proyectos que presenten se desarrollen en el Territorio Histórico de Bizkaia.

2. Cuando la beneficiaria sea una persona jurídica, las entidades asociadas a la entidad beneficiaria que tengan el compromiso de efectuar la totalidad o parte de las actividades que fundamentan la concesión de la subvención en nombre y por cuenta de la primera tendrán igualmente la consideración de beneficiarias.

3. En aplicación de lo dispuesto en la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones

izango dira erakunde onuradun izan arau horren 12. artikuluko 2., 3. eta 4. paragrafoetan adierazitako egoeraren batean daudenak.

Halaber, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauan xedatutakoa aplikatuz, aipatutako arauaren 42. artikuluaren a), b) eta c) letretan adierazitako egoeraren batean dauden erakundeek ezin izango dute dirulaguntzarik jaso, ezta onuradun izan ere.

3. artikulua. Emateko prozedura: norgehiagoka.

1. Dirulaguntza Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Saileko diputatuaren Foru Agindu bidez emango da, norgehiagoka-erregimenean. Dirulaguntza balorazio handiena lortu duten eskabideei emango zaie, dagozkien artikuluetan ezarritako irizpideen arabera, eta dagokion aurrekontu-partidan esleitutako zenbatekoa izango da muga.

2. Bizkaiko Foru Ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko ordainketen egoera erregularra egiaztatu ez bada, eskabidea ezetsi egingo da.

Era berean, eskatutako dirulaguntza ukatzeko arrazoia izango da aurrekontu-zuzkiduran dagoen kreditua agortzea eta eskatutako gutxieneko puntuazioa ez lortzea.

4. artikulua. Eskabideak aurkeztea eta epeak.

1. Dirulaguntza jaso nahi duten erakundeek egoitza elektroniko bidez aurkeztu beharko dute eskabidea, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 14.2.a artikuluan xedatutakoaren arabera.

2. Eskabideak aurkezteko epea dekretu hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hasiko da, eta 2023ko irailaren 29an amaituko, biak barne.

5. artikulua. Eskabidearekin batera aurkeztu beharreko agiriak.

1. Eskaera aurkezteko, Berdintasunerako Zuzendaritza Nagusiak emandako eredu espezifikoak erabili beharko dira nahitaez, aurtengo urteari dagozkionak (_ eranskina). Eskabide-orri horiek, gainera, Bizkaiko Foru

otorgadas por la administración foral, no podrán obtener la condición de entidades beneficiarias aquellas en quienes concurra cualquiera de las circunstancias señaladas en los apartados 2, 3 y 4 del artículo 12 de la citada norma.

Asimismo, en aplicación de lo dispuesto en la Norma Foral 4/2018, de 20 de junio, para la igualdad de mujeres y hombres, no podrán concurrir ni resultar beneficiarias de estas subvenciones aquellas entidades en quienes concurra cualquiera de las circunstancias señaladas en los apartados a, b y c del artículo 42 de la citada norma.

Artículo 3. Procedimiento de concesión: concurrencia competitiva.

1. La concesión de la subvención se realizará mediante Orden Foral de la diputada de Empleo, Inclusión Social e Igualdad en régimen de concurrencia competitiva, otorgándose la subvención a aquellas solicitudes que hayan obtenido mayor valoración, según los criterios que se establecen en los artículos correspondientes, teniendo como límite la cuantía consignada en la correspondiente partida presupuestaria.

2. Procederá la desestimación de la solicitud si no se hubiera acreditado la situación regular de pagos con la Hacienda Foral de Bizkaia y frente a la Seguridad Social.

Igualmente será motivo de denegación de la subvención solicitada el agotamiento de crédito existente en la consignación presupuestaria, así como no alcanzar la puntuación mínima exigida.

Artículo 4. Presentación de solicitudes y plazos.

1. Las entidades que deseen acogerse a la subvención deberán presentar la correspondiente solicitud obligatoriamente por sede electrónica, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 14. 2.a. de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

2. El plazo de presentación de las solicitudes será desde el día siguiente al de la publicación del presente decreto en el «Boletín Oficial de Bizkaia» hasta el 29 de septiembre de 2023, inclusive.

Artículo 5. Documentación a presentar con la solicitud.

1. La solicitud deberá presentarse utilizando obligatoriamente los modelos específicos facilitados por la Dirección General de Igualdad correspondientes al año en curso (anexo _ ). Estos

AIdundiaren web orrian daude eskuragarri (https://web.bizkaia.eus/eu). Eredu horiek erabiltzen ez badira, dirulaguntzan atzera egingo da.

a) Eskabide-inprimakia.
b) Diruz lagun daitekeen proiektuaren deskribapena (1_ eranskina).
   Dokumentu honek gehienez 15.000 hitz izango ditu.
   Proiektuak gehienezko luzapen hori gainditzen badu, edukia 15.000 hitzetara arte baino ez da baloratuko.
   Bestalde, ez da baloratuko dokumentu horretan garatu ez den edukirik, hala nola web-orrietarako edo bestelako euskarri-dokumentuetarako estekak.
c) Diru-sarreren eta gastuen aurrekontua (2_ eranskina): proiektuari lotutako gastu eta diru-sarrera guztiak berariaz jasotzea.
d) Berdintasunaren arloan laguntza teknikoa emateko edo prestakuntza emateko pertsonak eta/edo erakundeak kontratatzen badira, berdintasunaren alorreko prestakuntza eta/edo esperientzia izan beharko dute.
   Baldintza hori honela egiaztatu beharko da berdintasunaren arloko prestakuntza emango duen pertsonari edo berdintasunaren arloko laguntza teknikoa emango duenari dagokionez:
   Gutxienez 150 prestakuntza-orduren egiaztagiria aurkeztu beharko dute, Administrazio eskudunak balio akademiko ofiziala duten tituluak ematea onartzen duen irakaskuntza-zentro publiko edo pribatu batek emandako titulazio akademikoaren bidez, edo emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan gutxienez urtebeteko esperientzia profesionalaren bidez, arlo honetan eskumena egiaztatzen duten lanak zehaztuta.
e) Itzulketa edo zehapen prozeduraren batean ez egotearen adierazpena (halako dirulaguntzen edo laguntzen eremuan hasitako prozedura).

f) 12. artikuluko debekuetako batek ere eragiten ez diola eta maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 13. artikuluan zerrendatutako betebeharrak betetzen dituela adierazten duen adierazpena.

2. Berdintasunerako Zuzendaritza Nagusian lehen aldiz

impresos de solicitud estarán además disponibles para su cumplimentación la página web de la Diputación Foral de Bizkaia (https://web.bizkaia.eus/es). La no utilización de dichos modelos supondrá el desistimiento de la subvención.

a) Formulario de solicitud.
b) Descripción del proyecto subvencionable (Anexo 1).
   La extensión máxima de este documento no podrá superar las 15.000 palabras.
   En el caso en que el proyecto supere dicha extención máxima, solamente se valorará el contenido hasta las 15.000 palabras.
   Por otra parte, no se valorará ningún contenido que no se encuentre desarrollado en dicho documento, tales como enlaces a páginas web u otros documentos de soporte.
c) Presupuesto de ingresos y gastos (Anexo 2): recoger de manera expresa todos los gastos e ingresos asociados al proyecto..
d) En el caso de que se contraten personas y/o entidades para asistencia técnica en materia de igualdad o para impartir formación, deberán contar con formación y/o experiencia en materia de igualdad.
   Dicha condición deberá acreditarse de la siguiente manera respecto de la persona que impartirá la formación en materia de igualdad y/o que llevará a cabo la asistencia técnica en materia de igualdad:
   Deberán presentar acreditación de, al menos, 150 horas de formación, mediante titulación académica expedida por algún Centro de Enseñanza público o privado que tenga reconocida por la Administración competente la expedición de títulos con validez académica oficial, o bien experiencia profesional de, al menos, un año en materia de igualdad de mujeres y hombres, especificando los trabajos que acreditan la competencia en la materia.
e) Declaración de no hallarse incursa en procedimiento alguno de reintegro o sancionador iniciado en el marco de subvenciones o ayudas de la misma naturaleza.
f) Declaración de no estar afectada por ninguna de las prohibiciones del artículo 12 y de cumplir las obligaciones relacionadas en el artículo 13 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo.

dirulaguntza eskatzen duten erakundeek, edo aurreko paragrafoan zerrendatutako dokumentuez gain datuetan aldaketaren bat izan dutenek, honako hauek aurkeztu beharko dituzte:

a) Behar bezala legeztatutako estatutuen kopia.
b) Erakundea behar den administrazio erregistroan inskribatuta dagoela frogatzen duen agiria (eguneratua).
c) Hartzekodunaren banku-fitxa, behar bezala beteta.

3. Bizkaiko Foru Aldundiaren esku dauden eta data jakin bat adierazten ez duten dokumentuak, haietan ezer aldatu ez delako zinpeko adierazpena aurkeztuz osatu ahalko dira; zein sail, data eta prozeduretarako aurkeztu ziren adierazi beharko da.

4. Halaber, dirulaguntzaren eskabidea aurkeztearekin batera, Bizkaiko Foru Aldundiko Berdintasunerako Zuzendaritza Nagusiari baimena emango zaio Foru Ogasunak eta Gizarte Segurantzak eman beharreko ziurtagiriak eskatzeko, betiere eskatzaileak berariaz aurka daudela adierazten ez bada.

5. Bizkaiko Foru Aldundiko Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko Saileko Berdintasunerako Zuzendaritza Nagusiak, Bizkaiko Elkarreragingarritasun Nodoaren bidez, eta dagozkien elkarreragingarritasun-zerbitzuen bidez, behar diren egiaztapenak eta kontsultak egingo ditu aurkeztutako eskabideen administrazio-izapideak egiteko eskatzen diren pertsona eta erakunde interesdunei buruz, 39/2015 Legearen 13., 28. eta 53. artikuluetan aitortutako eskubideei kalterik egin gabe.
Arrazoi teknikoengatik ezin bada informazioa zuzenean beste administrazio publiko batzuetatik lortu, Berdintasunerako Zuzendaritza Nagusiak izapideak egiteko behar diren datuak edo dokumentuak eskatu ahal izango ditu.

6. Bizkaiko Foru Aldundiko Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko Saileko Berdintasunerako Zuzendaritza Nagusiak eskabidea behar bezala ebaluatu eta ebazteko beharrezkotzat jotzen dituen agiri eta informazio osagarriak eskatu ahal izango dizkie erakunde eskatzaileei.

7. Eskatzaile bakoitzak proiektu bakarra aurkeztu ahal izango du.

6. artikulua. Eskabidea zuzentzea eta espedientea

2. Las entidades que solicitan por primera vez subvención ante la Dirección General de Igualdad, o aquellas que hayan tenido alguna modificación en sus datos, además de los documentos relacionados en el apartado anterior, deberán presentar:

d) Copia de los estatutos debidamente legalizados.
e) Documento acreditativo actualizado de la inscripción de la entidad en el registro administrativo correspondiente.
f) Ficha bancaria de parte acreedora debidamente cumplimentada.

3. Los documentos no referidos a una fecha concreta que ya obren en manos de la Diputación Foral de Bizkaia podrán suplirse con una declaración jurada de que estos no han sufrido modificaciones, indicando el departamento, la fecha y el procedimiento para el que fueron presentados.

4. Asimismo, la presentación de la solicitud de subvención conllevará la autorización a la Dirección General de Igualdad de la Diputación Foral de Bizkaia para recabar los certificados a emitir por la Hacienda Foral y por la Seguridad Social, siempre que no conste la expresa oposición de las personas solicitantes.

5. La Dirección General de Igualdad, del Departamento de Empleo, Cohesión Social e Igualdad de la Diputación Foral de Bizkaia, mediante el Nodo de Interoperabilidad de Bizkaia, y a través de los servicios de interoperabilidad correspondientes, realizará las comprobaciones y consultas pertinentes de los datos de las personas y entidades interesadas requeridos para la tramitación administrativa de las solicitudes presentadas, sin perjuicio de los derechos reconocidos en los artículos 13, 28 y 53 la Ley 39/2015.
Si por causas técnicas no fuese posible obtener la información directamente de otras administraciones públicas, la Dirección General de Igualdad podrá requerir datos o documentos necesarios para la tramitación.

6. La Dirección General de Igualdad, del Departamento de Empleo, Cohesión Social e Igualdad de la Diputación Foral de Bizkaia podrá requerir a las entidades solicitantes cuanta documentación e información complementaria considere necesaria para la adecuada evaluación y resolución de la solicitud presentada.

7. Cada solicitante podrá presentar un único proyecto.

Artículo 6. Subsanación de la solicitud y archivo del

artxibatzea.
Dirulaguntzetarako eskabideek ez badituzte identifikazio-datuak biltzen, akatsen bat badute edo osatu gabe badaude, hamar (10) egun baliodunеko epea emango zaio erakunde eskatzaileari akatsa zuzentzeko edo nahitaezko dokumentuak egoitza elektroniko bidez aurkezteko, eta adieraziko zaio, hala egin ezean, eskaeran atzera egin duela ulertuko dela, urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68.1 eta 21.1 artikuluetan xedatutakoaren arabera esanbidezko ebazpena eman ondoren. Proiektua deskribatzen duen eranskina ezin izango da zuzendu.

expediente.
Si las solicitudes de subvención no reunieran los datos de identificación, adolecieran algún error o fueran incompletas, se requerirá a la entidad solicitante para que en el plazo de diez (10) días hábiles subsane la falta o acompañe los documentos preceptivos obligatoriamente por sede electrónica, con indicación de que, si así no lo hiciera, se le tendrá por desistida de su petición, previa resolución expresa en tal sentido conforme disponen los artículos 68.1 y 21.1 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre. No será subsanable el anexo de descripción del proyecto.

7. artikulua. Izapidetzea, ebazpena eta errekurtsoak.
1. Laguntzak emateko eta, hala badagokio, ukatzeko, Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko Saileko titularrak foru-agindua emango du, horretarako sortuko den Batzorde Teknikoak proposatuta.

2. Batzorde Teknikoa izango da kide anitzeko antolamendu- eta instrukzio-organoa, eta dagozkion emakida-proposamenak egiteko ardura izango du.
Berdintasunerako Zuzendaritza Nagusiko titularrak, Genero Politiken eta Aniztasunaren Idazkaritza Teknikoak, bertako teknikariek eta Enplegu eta Ekintzailetza Sustatzeko DEMA Foru Agentziaren ordezkari batek osatuko dute Batzorde Teknikoa.

3. Emateko ebazpenean emakidaren baldintzak zehaztuko dira, hala nola gauzatzeko epea, onartutako aurrekontua, diruz lagundutako zenbatekoa eta justifikatu beharreko zenbatekoa, bai eta erakunde onuradunek dekretu honetan eta maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauan ezarritakoaren arabera dituzten betebeharrak ere.
Era berean, kasu bakoitzerako baldintza bereziak ezarri ahal izango dira, jardueren izaera espezifikoagatik edo beste inguruabar batzuengatik, dirulaguntzen xedea eta helburuak betetzeko komenigarritzat jotzen direnean.

4 . Eskatutako dirulaguntza emateko edo ukatzeko administrazio-bidea agortzen duen ebazpena edo erabakia interesdunei jakinaraziko zaie, urriaren 1eko 39/2015 Legearen 40. artikulutik 44. artikulura bitartean ezarritakoaren arabera.

5. Organo eskudunak prozeduraren ebazpena

Artículo 7. Tramitación, resolución y recursos.
1. La concesión y, en su caso, la denegación de las ayudas será realizada mediante Orden Foral de la persona titular del Departamento de Empleo, Cohesión Social e Igualdad, a propuesta de la Comisión Técnica que se crea a tal efecto.

2. La Comisión Técnica será el órgano colegiado de ordenación e instrucción encargado de elaborar las propuestas de concesión correspondientes.
La Comisión Técnica estará integrada, por la persona titular de la Dirección General de Igualdad, la Secretaría Técnica de Políticas de Género y Diversidad, personal técnico de la misma y una persona representante de DEMA, Agencia Foral de Empleo y Emprendimiento.

3. En la resolución de otorgamiento se señalarán las condiciones de la concesión, tales como plazo de ejecución, presupuesto admitido, cantidad subvencionada y cantidad a justificar, así como las obligaciones de las entidades beneficiarias en base a lo establecido en este decreto, así como en la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo.
Igualmente podrán establecerse condiciones particulares para cada caso cuando, por la naturaleza específica de las actividades u otras circunstancias concurrentes, se estimen convenientes para el cumplimiento de la finalidad y objetivos de las subvenciones.

4 . La resolución o acuerdo por los que se proceda a la concesión o denegación de la subvención solicitada, que agota la vía administrativa, se notificará a las personas interesadas de acuerdo a lo previsto en los artículos 40 a 44 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre.

5. Notificada la resolución del procedimiento por el

jakinarazi ondoren, erakunde onuradunak hamar (10) egun naturaleko epea izango du ebazpena onartzeko. Epe hori igaro eta esanbidezko adierazpenik egin ez bada, isilbidez onartutzat joko da.

órgano competente, la entidad beneficiaria dispondrá de un plazo de diez (10) días naturales para su aceptación, transcurrido el cual sin haberse producido manifestación expresa, se entenderá tácitamente aceptada.

6. Eskabideak ebazteko eta jakinarazteko gehieneko epea hiru (3) hilabetekoa izango da, eskabideak aurkezteko epea amaitzen denetik hasita. Egun horretan berariazko ebazpenik ematen ez bada, dirulaguntza-eskaerak ezetsitzat joko dira, hargatik eragotzi gabe administrazioak berariaz ebazteko duen betebeharra.

6. El plazo máximo para la resolución y notificación de las solicitudes será de tres (3) meses desde la finalización del plazo para presentar solicitudes, considerándose desestimadas las peticiones de subvención si no recayera resolución expresa a dicha fecha, sin perjuicio de la obligación de la administración de resolver expresamente las mismas.

7. Ebazpenaren aurka, aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkeztu ahal izango diote interesdunek ebazpena eman duen organoari, hilabeteko (1) epean, ebazpenaren jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik aurrera; bestela, zuzenean aurkaratu ahal izango dituzte Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioan, bi (2) hilabeteko epean, ebazpenaren jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik aurrera, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean ezarritakoaren arabera. Ezin izango dira bi errekurtsoak aldi berean erabili.

7. Contra la resolución, las personas interesadas podrán interponer recurso potestativo de reposición ante el órgano que los hubiere dictado en el plazo de un (1) mes contado a partir desde el día siguiente a aquél en que reciba la notificación de la misma, o impugnarlos directamente ante la Jurisdicción Contencioso-Administrativa en el plazo de dos (2) meses contados desde el día siguiente a aquél en que reciba la notificación de la misma, en los términos contemplados en la Ley 29/1998, de 13 de julio, reguladora de la jurisdicción contencioso administrativa. No será posible simultanear ambos recursos.

8. Emandako dirulaguntzen publizitateari dagokionez, emandako dirulaguntzen laburpena Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzeko agindua emango da. Bertan, programak eta esleitutako aurrekontu-kreditua adieraziko dira, bai eta erakunde esleipendunen zerrenda eta emandako zenbatekoak ere, indarrean dagoen araudiaren esparruan.

8. En cuanto a la publicidad de las subvenciones otorgadas, se ordenará la publicación en el «Boletín Oficial de Bizkaia» del extracto de las subvenciones concedidas, con expresión del programa y crédito presupuestario al que se imputen, así como el listado de las entidades adjudicatarias y cantidades concedidas, dentro del marco de la normativa vigente.

8. artikulua. Dirulaguntza ordaintzea.

1 . Dirulaguntzak ezarritako prozeduraren arabera onartu ondoren, eta prozeduraren ebazpena jakinarazi eta hamar (10) egun naturaleko gutxieneko epea igaro ondoren, emandako dirulaguntzaren zenbatekoaren % 100 izapidetuko da.

Artículo 8. Pago de la subvención.

1 . Una vez aprobadas las subvenciones conforme al procedimiento establecido, y transcurrido el plazo mínimo de diez (10) días naturales a contar desde la notificación de la resolución del procedimiento, se procederá a tramitar el 100% del importe de la subvención concedida.

2. Dirulaguntzak eman eta ordaindu ahal izateko, erakundeek zerga-betebeharrak eta zuzenbide publikoko eta Gizarte Segurantzako gainerako betebeharrak bete beharko dituzte. Gorabehera hori eskabidea aurkezten den unean bertan gertatu beharko da, eta emakidaren unean, obligazioaren aitorpenean eta ordainketan mantendu beharko da, eta hori espedientean justifikatuko da, maiatzaren 31ko

2. La concesión y el pago de las subvenciones quedan condicionados al cumplimiento por parte de las entidades de sus obligaciones tributarias y demás de Derecho Público y frente a la Seguridad Social, circunstancia ésta que deberá concurrir en el momento de la presentación de la solicitud y mantenerse en el momento de la concesión, en el reconocimiento de la obligación y en el pago, lo que

5/2005 Foru Arauan xedatutakoaren arabera.

3. Halaber, erakunde onuradunei dirulaguntzak emateko eta, hala badagokio, ordaintzeko, ezinbestekoa izango da amaituta egotea Bizkaiko Foru Aldundiak berdintasunaren arloan emandako dirulaguntzen esparruan hasi eta oraindik izapidetzen ari den edozein itzulketa- edo zehapen-prozedura.

9. artikulua. Erakunde onuradunen betebeharrak.

Erakunde onuradunek betebehar hauek izango dituzte:

a) Helburua betetzea eta dirulaguntza emateko oinarri den proiektua gauzatzea.
b) Dirulaguntza eman duen organoaren aurrean justifikatzea eskakizunak eta baldintzak betetzen direla, bai eta jarduera egin dela eta dirulaguntza emateko edo baliatzeko ezarritako helburua bete dela ere. Horretarako, 15. artikuluan ezarritako moduan onartutako egiaztagiriak bidaliko zaizkio Berdintasunerako Zuzendaritza Nagusiari.
c) Laguntza ematen duen organoak egin beharreko egiaztapen-jarduerak onartzea eta horiekin lankidetzan aritzea. Horretarako, Berdintasunerako Zuzendaritza Nagusiak beharrezkoak diren ikuskapen- eta kontrol-ekintzak egin ahal izango ditu, dekretu honen bidez lortu nahi diren helburuak betetzen direla bermatzeko.
d) Berdintasunerako Zuzendaritza Nagusiak proiektuen hasierako, jarraipeneko eta ebaluazioko hiru (3) bileretan parte hartzea.
e) Berdintasunerako Zuzendaritza Nagusiak proiektuarekin zerikusia duen informazio guztia ematea.
f) Erakundearen ordezkari bat (1) izendatzea, Berdintasunerako Zuzendaritza Nagusiarekin lankidetzan egiten diren jarduera eta/edo bileretarako.
g) Diruz lagundutako proiektuan egiten den edozein aldaketaren berri ematea, bai eta garatu beharreko jardueren xedea edo izaera funtsean aldatzen duen edozein gorabeheraren berri ere.
h) Foru dekretu honetan eta maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 13. artikuluan ezarritako betebeharrak betetzea, eta, bereziki, jasotako funtsen erabileraren

se justificará en el expediente de conformidad con lo dispuesto en la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo.

3. Asimismo, la concesión y, en su caso, el pago a las entidades beneficiarias de las subvenciones quedará condicionada a la terminación de cualquier procedimiento de reintegro o sancionador que, habiéndose iniciado en el marco de las subvenciones en materia de igualdad concedidas por la Diputación Foral de Bizkaia, se halle todavía en tramitación.

Artículo 9. Obligaciones de las entidades beneficiarias.

Las entidades beneficiarias vendrán obligadas a:

a) Cumplir el objetivo y ejecutar el proyecto que fundamente la concesión de la subvención.
b) Justificar ante el órgano concedente el cumplimiento de los requisitos y condiciones, así como la realización de la actividad y el cumplimiento de la finalidad que determine la concesión o disfrute de la subvención mediante la remisión a la Dirección General de Igualdad de la documentación justificativa aprobada en los términos del artículo 15.
c) Someterse y colaborar con las actuaciones de comprobación a efectuar por el órgano concedente, a cuyo efecto la Dirección General de Igualdad podrá realizar las acciones de inspección y control necesarias para garantizar el cumplimiento de las finalidades perseguidas por este decreto.
d) Participar en las tres (3) reuniones de inicio, seguimiento y evaluación de los proyectos que convocará la Dirección General de Igualdad.
e) Aportar toda la información relacionada con el proyecto que requiera la Dirección General de Igualdad.
f) Desginar a una (1) persona representante de la entidad para las actuaciones y/o reuniones que se lleven a cabo en colaboración con la Dirección General de Igualdad.
g) Comunicar cualquier modificación que se realice en el proyecto subvencionado, así como cualquier eventualidad que altere sustancialmente el objeto o naturaleza de las actividades a desarrollar.
h) Cumplir las obligaciones que se establecen en este decreto foral y en el artículo 13 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, y en

frogagiriak gordetzea, agiri elektronikoak barne, egiaztapen eta kontrol jarduketen xede izan baitaitezke.

i) Bizkaiko Foru Aldundiaren maiatzaren 28ko 63/2019 Foru Dekretuaren 13.3 eta 13.4 artikuluetan ezarritakoa betez (dekretu horren bidez, Bizkaiko Foru Aldundiaren, haren erakunde autonomoen eta foru-sektore publikoaren jarduera-eremuan hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak ezartzen dira), elkarte edo erakunde onuradunek euskara erabili beharko dute diruz lagundutako jardueraren ondoriozko esku-hartze publiko guztietan, eta bi hizkuntza ofizialak erabili beharko dituzte herritarrei jardueraren berri emateko erabiltzen diren liburuxka, kartel edo beste edozein euskarritan.

j) Zabalkunde, hedapen edo argitalpen xede diren eta diruz lagunduta dauden jarduеretan, berariaz adierazi beharko da Bizkaiko Foru Aldundiak finantzatu duela, logotipoa eta Berdintasunerako Zuzendaritza Nagusiaren logotipoa gehituz. Logotipo horiek Zuzendaritzak emango ditu.

k) Era berean, erakundeek Berdintasunerako Zuzendaritza Nagusiari jakinarazi eta bidali beharko diote jardueraren antolaketari buruzko informazioa, non, noiz eta zer ordutan egin den adieraziz, eta kartelak eta/edo zabalkunderako beste dokumentu batzuk eta garrantzitsua den informazio guztia bidali beharko dute, aurretik.

l) Erakunde onuradunek Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Indarkeria Matxistarik Gabeko Bizitzetarako Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuan eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauan ezarritako printzipio orokorrak bete beharko dituzte beren jardueretan.
Gauzak horrela, agiri guztietan, publizitatean, irudietan eta materialetan hizkuntzaren erabilera sexista eta emakumeen irudi bereizkeriazkoa edo estereotipo sexistak saihestu behar ditu, eta irudi egokia sustatu, balio zuzenak islatzen dituena: berdintasuna,

particular, la de conservar los documentos justificativos de la aplicación de los fondos recibidos, incluidos los documentos electrónicos, en tanto puedan ser objeto de las actuaciones de comprobación y control.

i) En cumplimiento de lo establecido en los artículos 13.3 y 13.4 del Decreto Foral 63/2019, de 28 de mayo de la Diputación Foral de Bizkaia, por el que se establecen los criterios de uso de las lenguas oficiales en el ámbito de actuación de la Diputación Foral de Bizkaia, de sus organismos autónomos y del sector público foral, las asociaciones o entidades beneficiarias deberán utilizar el euskera en todas las intervenciones públicas resultantes de la actividad subvencionada y utilizar las dos lenguas oficiales en todos los folletos, carteles o cualquier otro soporte utilizado para dar publicidad de su actividad a la ciudadanía.

j) En las actividades subvencionadas que sean objeto de divulgación, difusión o publicación, hacer constar expresamente la existencia de financiación por parte de la Diputación Foral de Bizkaia mediante la incorporación de su logotipo, así como del logotipo de la Dirección General de Igualdad. Dichos logotipos los proporcionará la Dirección.

k) Asimismo, las entidades tendrán la obligación de comunicar y enviar a la Dirección General de Igualdad la información relativa a la organización de la actividad, indicando lugar, fecha, hora, y remitiendo cartelería y/u otros documentos de difusión y toda la información que sea relevante, con anterioridad a la misma.

l) Las entidades beneficiarias deberán cumplir en sus actividades con los principios generales establecidos tanto en el Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y Vidas Libres de Violencia Machista contra las Mujeres como en la Norma Foral 4/2018, de 20 de junio, para la Igualdad de Mujeres y Hombres.
Así, toda la documentación, publicidad, imagen o materiales deberán emplear un uso no sexista del lenguaje, evitar cualquier imagen discriminatoria de las mujeres o estereotipos sexistas y fomentar una

presentzia orekatua, dibertsitatea, ardura partekatua eta rolen nahiz genero-identitateen aniztasuna.
Halaber, sexuaren/generoaren eta adinaren arabera bereizitako datuak jaso beharko dituzte justifikazio-jarduueraren memorian. Datuak banakatu ahal izango dira garrantzitsutzat jotzen diren beste desberdintasun-ardatz batzuen arabera (dibertsitate funtzionala/desgaitasuna, adina, jatorria/migrazioa, etab.).

m) Bizkaiko Gardentasunari buruzko otsailaren 17ko 1/2016 Foru Arauan araututakoarekin bat, erakunde onuradunak nahitaez bete beharko ditu II. tituluan jasotako publizitate aktiboaren eskakizunak, baldin eta 2. artikuluan aipatutako kasuetako batean badaude: aurrekontu-ekitaldi batean Bizkaiko Foru Aldunditik gutxienez 100.000 eurora iristen diren laguntzak edo dirulaguntzak jasotzen dituzten erakunde pribatuak, edo urteko diru-sarrera guztien ehuneko 40 foru-laguntza edo -dirulaguntza publikoak badira, betiere gutxienez 5.000 eurora iristen direnean.

n) Erakunde onuradunak konpromisoa hartzen du, ahal duen neurrian, arkitektura- eta komunikazio-oztopoak kentzen laguntzeko, dekretu honekin lotuta antolatzen diren zerbitzu, ekitaldi edo jarduerei dagokienez. Halaber, erakunde onuradunak konpromisoa hartzen du erakundearen baliabideen erabilera jasangarria egiteko.

o) Era berean, 5/2005 Foru Arauaren 29.3 artikulua aplikatuz, erakunde onuradunak hiru hornitzaile desberdini eskatu beharko dizkio eskaintzak gutxienez, diruz lagun daitekeen gastua, obra gauzatzeagatik sortua, 40.000 eurotik gorakoa denean, edo 15.000 eurotik gorakoa denean, aholkularitzako edo laguntza teknikoko enpresek ekipamenduez hornitzeagatik edo zerbitzuak emateagatik denean.
Justifikazioan agerrarazi behar da aurkezturiko eskaintzen artean

imagen con valores de igualdad, presencia equilibrada, diversidad, corresponsabilidad y pluralidad de roles e identidades de género.
También deberán incluir datos diferenciados por sexo/género y edad en la memoria de actividad justificativa. Podrán desglosarse los datos atendiendo a otros ejes de desigualdad que se consideren relevantes (diversidad funcional/discapacidad, edad, origen/migración, etc.).

m) De conformidad con lo regulado en la Norma Foral 1/2016, de 17 de febrero, de Transparencia de Bizkaia, la entidad beneficiaria estará obligada, en su caso, a cumplir las exigencias de publicidad activa contenidas en su Título II, siempre y cuando se encuentre en alguno de los supuestos mencionados en el artículo 2: entidades privadas que durante un ejercicio presupuestario perciban de la Diputación Foral de Bizkaia ayudas o subvenciones que alcancen al menos una cuantía de 100.000 euros o cuando el 40 por ciento del total de sus ingresos anuales tengan el carácter de ayuda o subvención pública foral, siempre que alcancen como mínimo 5.000 euros.

n) La entidad beneficiaria se compromete, en la medida de sus posibilidades, a colaborar con la eliminación de barreras arquitectónicas y de comunicación, en relación con los servicios, eventos o actividades que se organicen relacionados con el presente decreto. Asimismo, la entidad beneficiaria se compromete a hacer un uso sostenible de los recursos de la entidad.

o) En aplicación del artículo 29.3 de la Norma Foral 5/2005, la entidad beneficiaria deberá, como mínimo, solicitar tres ofertas de diferentes proveedores cuando el gasto subvencionable supere la cuantía de 40.000 euros en el supuesto de coste por ejecución de obra, o 15.000 euros en el caso de suministro de bienes de equipo o prestación de servicios por empresas de consultoría o asistencia técnica.
La elección entre las ofertas presentadas, deberá aportarse en la justificación, y se realizará conforme a criterios de eficiencia y

aukeraturikoa; hartara, eraginkortasun eta ekonomia irizpideak bete beharko dira. Aukeraketa beren beregi justifikatu behar da memorian, proposamen merkeena egin duena hautatu ezean.

10. artikulua. Jarraipena.

Berdintasunerako Zuzendaritza Nagusiak gutxienez hiru (3) bilera deituko ditu erakunde onuradunekin:

- Hasierako bilera.
- Diruz lagundutako proiektuen jarraipen-bilera.
- Diruz lagundutako proiektuak ebaluatzeko bilera.

Bilera horiek banakakoak izan daitezke erakunde onuradun eta/edo kolektibo bakoitzarekin.

Berdintasunerako Zuzendaritza Nagusiak, ausaz, erakunde eskatzaileei bileretarako deia egin ahal izango die, diruz lagundutako proiektuaren jarraipena egiteko eta bisitak egiteko.

11. artikulua. Diruz lagun daitezkeen proiektuak.

Berdintasunerako Zuzendaritza Nagusiaren helburuekin bat etorriz, proiektu eraldatzaileak egiteko izan beharko dute diruz lagundu beharreko proiektuek, baldin eta proiektu horien helburua emakumeen eta gizonen berdintasunean aurrera egitea bada, hala nola:

a) Genero-berdintasunaren aldeko antolamendu-aldaketako proiektuak.
b) Intersekzionalitate kontzeptua aplikatu nahi duten proiektuak.
c) Eremu estrategikoetako esplorazio-proiektuak, hala nola:
    - Klima aldaketa eta iraunkortasuna.
    - Zainketak eta ekonomia.
    - Eragin politikoa.
    - Indarkeria matxistaren erreparazioa.
    - Hirigintza eta garraioa.
    - Teknologia.
    - Erronka demografikoa.
    - Sexu- eta ugalketa-osasuna.
    - Sare sozialak.
    - Landa-eremua.
    - Kultura.
d) Emakumeen eta gizonen berdintasunean aurrera egiteko interes berezikotzat jotzen diren beste proiektu eraldatzaile batzuk.

Zerrenda hori diruz lagundu daitezkeen proiektuen zerrenda irekia da, betiere emakumeen eta gizonen

economía, debiendo justificarse expresamente en una memoria de elección cuando no recaiga en la propuesta económica más ventajosa.

Artículo 10. Seguimiento.

La Dirección General de Igualdad convocará, con carácter mínimo, tres (3) reuniones con las entidades beneficiarias:

- Reunión de inicio.
- Reunión de seguimiento de los proyectos subvencionados.
- Reunión de evaluación de los proyectos subvencionados.

Las citadas reuniones podrán ser individuales con cada entidad beneficiaria y/o colectivas.

La Dirección General de Igualdad podrá, de forma aleatoria, convocar a las entidades solicitantes a reuniones con el objetivo de hacer seguimiento del proyecto subvencionado, así como realizar visitas a las mismas.

Artículo 11. Proyectos subvencionables.

En consonancia con los fines de la Dirección General de Igualdad, los proyectos a subvencionar deberán estar dirigidos a la realización de proyectos transformadores, siempre y cuando tengan por objeto el avance en la igualdad de mujeres y hombres, tales como:

a) Proyectos de cambio organizacional pro-equidad de género.
b) Proyectos que pretendan aplicar el concepto de interseccionalidad.
c) Proyectos exploratorios en ámbitos estratégicos como:
    - Cambio climático y sostenibilidad.
    - Cuidados y Economía
    - Incidencia Política
    - Reparación de la violencia machista
    - Urbanismo y Transporte
    - Tecnología
    - Reto Demográfico
    - Salud sexual y reproductiva
    - Redes sociales
    - Ámbito rural
    - Cultura
d) Otros proyectos transformadores que se consideren de especial interés para el avance en la igualdad de mujeres y hombres.

La citada relación constituye una lista abierta de proyectos subvencionables, siempre y cuando se trate de proyectos transformadores que tengan por objeto el avance en la igualdad de mujeres y

berdintasunean aurrera egitea helburu duten proiektu eraldatzaileak badira.

2. Deialditik kanpo geratuko dira hauek:
a) Inbertsiora bideratutako eskabideak edo irabazi-asmoa dutenak.
b) Beste erakunde eta/edo entitate batzuekin batera finantzatutako proiektuak.
c) Jarduera asistentzialak eta/edo terapeutikoak diren proiektuak, soil-soilik.
d) Genero ikuspegia txertatuta ez daukaten proiektuak.

12. artikulua. Diruz lagun daitezkeen gastuak eta onartutako aurrekontua.
1. Diruz lagundu daitezkeen gastutzat hartuko dira, zalantzarik gabe, diruz lagundutako jardueraren izaerari erantzuten diotenak, ezarritako epean egiten direnak, indarrean dagoen araudiaren arabera justifikatzen direnak eta justifikazio-aldia amaitu aurretik benetan ordaintzen direnak.

Bereziki, dekretu honen ondorioetarako, honako hauek dira diruz lagun daitezkeen gastuak:

a) Jasandako BEZa, erakunde onuradunak aitorpenean berreskuratu edo konpentsatu ezin duen neurrian.
b) Langileen zuzeneko kostuak, hau da, diruz lagundutako proiektuak gauzatzen zuzenean parte hartzen duten pertsonen soldatak eta gizarte-segurantzako gastuak.

c) Jarduera-kostuak, diruz lagundutako jarduera garatzeko behar-beharrezkoak direnak.
Kontzeptu horren barruan sartzen dira: material didaktiko eta suntsikorreko gastuak, istripu eta giza erantzukizuneko aseguruak, zabalkunde-gastuak, eta azterlanak, txostenak, prestakuntza, etab. egiteko gastuak, baita proiektua garatzeko behar-beharrezkoak diren gastuak ere.

d) Diruz lagunduko dira, halaber, diruz lagundutako jardueraren zeharkako kostuak, hau da, diruz lagundutako jarduera garatzeko beharrezkoak izanik justifikatu behar ez direnak (energia elektrikoa, telefonoa, administrazioko langileak, alokairuak, etab.).
Zeharkako kostuen zenbatekoa, gehienez,

hombres.

2. Quedan excluidas de la convocatoria:
a) Las solicitudes dirigidas a la inversión o aquellas que tengan ánimo de lucro.
b) Proyectos cofinanciados con otras Instituciones y/o Entidades.
c) Proyectos que constituyan actividades asistenciales y/o terapéuticas, exclusivamente.
d) Proyectos que no incorporen la perspectiva de género.

Artículo 12. Gastos subvencionables y presupuesto admitido.
1. Se consideran gastos subvencionables aquellos que de manera indubitada respondan a la naturaleza de la actividad subvencionada, se realicen en el plazo establecido, se justifiquen de conformidad con la normativa en vigor y sean efectivamente pagados con anterioridad a la finalización del período de justificación.
En especial, a efectos del presente decreto tienen la consideración de gastos subvencionables los siguientes:
a) El IVA soportado, en la medida en que la entidad beneficiaria no lo pueda recuperar o compensar en su declaración.
b) Costes directos de personal, entendiendo por tales los sueldos y salarios y gastos de seguridad social de las personas que participen directamente en la ejecución de los proyectos subvencionados.
c) Costes de actividad, estrictamente necesarios para el desarrollo de la actividad subvencionada.
Quedarán incluidos en este concepto los gastos de material didáctico y fungible, los seguros de accidentes y responsabilidad civil, los gastos de difusión, los gastos de subcontratación de estudios, informes, formación… así como aquellos otros gastos estrictamente necesarios para el desarrollo del proyecto.
d) Asimismo, serán subvencionables los costes indirectos de la actividad subvencionada, entendiendo por tales aquellos que siendo necesarios para desarrollar la actividad subvencionada, no es necesaria su justificación (energía eléctrica, teléfono, personal administrativo, alquileres, etc.).
El importe de costes indirectos será un máximo del 15% de los costes directos

dirulaguntza jaso dezakeen 12.1b) artikuluaren zuzeneko kostuen %15 izango da.

Jarduera egiteko bestelako gastuak, aurrekontuan jasota badaude eta kategoria horretako batean sartuz gero, zehaztu egin beharko dira.
Ez da inbertsio gastuetarako dirulaguntzarik emango.

2. Berdintasunerako Zuzendaritza Nagusiak diruz lagundu ezin diren gastuak dituzten edo gastu-mota bakoitzerako ezarritako mugak gainditzen dituzten aurrekontuak garbitu ahal izango ditu. Kasu horietan, eskatutako aurrekontuari diruz lagundu ezin diren gastuak eta gehiegikeria ez-konputagarriak kenduta ateratzen den emaitza izango da onartutako aurrekontua. Horrela, eta betiere dekretu honetan ezarritako baldintzak betetzen badira, Berdintasunerako Zuzendaritza Nagusiak dirulaguntza esleituko du onartutako aurrekontuaren zenbatekoaren gainean.

3. Ez dira dirulaguntza jaso dezaketen gastuak izango zeharkako zergak baldin eta berreskuratu edo konpentsatu badaitezke, errentaren gaineko zerga pertsonalak, interes zordunak, edota altzarien, ekipamenduen, ibilgailuen, azpiegituren, ondasun higiezinen eta lurren eskuraketa berriak edo bigarren eskukoak; interes, errekargu eta zehapen administratiboak eta penalak eta prozedura judizialeko gastuak.

4. Erakunde onuradunak dirulaguntza jaso duen jardueraren zenbatekoaren %75eraino azpikontratatu ahal izango du dirulaguntza jasotzen duen jarduera betearazteko beharrezkoak diren jardueretan, betiere 5/2005 Foru Arauko 27. eta 29. artikuluetan ezarritakoarekin bat etorriz.

13. artikulua. Dirulaguntzaren zenbatekoa.
1. Dirulaguntzak 10.000 eurokoak izango dira gutxienez, eta 30.000 eurokoak gehienez.
Esleitutako zenbatekoa kalkulatzeko, eskatutako aurrekontua hartuko da oinarri, edo, hala badagokio, onartutako aurrekontua, diruz lagundu ezin diren gastuak eta gehiegikeria ez-konputagarriak garbitu ondoren.
2. Dirulaguntza eskaera bakoitzak lortutako puntuazioaren arabera esleituko da, eta puntuazio horrek 35 puntu edo gehiago izan beharko ditu.

relativos al artículo 12.1 b).

Cualquier otro gasto necesario para la realización de la actividad que esté previsto en el presupuesto y que no responda a una de estas categorías, deberá ser detallado.
No serán subvencionables los gastos de inversión.

2. La Dirección General de Igualdad podrá depurar los presupuestos que contengan gastos no subvencionables o que excedan de los límites establecidos para cada tipo de gasto. En estos casos, el presupuesto admitido será el resultado de restar al presupuesto solicitado los gastos no subvencionables y los excesos no computables. De este modo, y siempre y cuando se cumplan los requisitos establecidos en el presente Decreto, la Dirección General de Igualdad realizará la asignación de la subvención sobre el importe del presupuesto admitido.

3. No tendrán la consideración de gastos subvencionables los impuestos indirectos cuando sean susceptibles de recuperación o compensación, los impuestos personales sobre la renta, los intereses deudores, las adquisiciones nuevas o de segunda mano de mobiliario, equipo, vehículos, infraestructuras, bienes inmuebles y terrenos, los intereses, recargos y sanciones administrativas y penales y los gastos de procedimientos judiciales.

4. La entidad beneficiaria podrá subcontratar, hasta un 75% del importe de la actividad subvencionada, cuantas actividades sean necesarias para la consecución de la actividad subvencionada de conformidad con los artículos 27 y 29 de la Norma Foral 5/2005.

Artículo 13. Importe de la subvención.
1. Las subvenciones tendrán un importe mínimo de 10.000 euros y máximo de 30.000 euros.
El cálculo del importe asignado se realizará a partir del presupuesto solicitado o, en su caso, a partir del presupuesto admitido, una vez depurados los gastos no subvencionables y los excesos no computables.

2. La asignación de la subvención se realizará en base a la puntuación obtenida por cada solicitud, que deberá ser igual o superior a 35 puntos.

3. Los proyectos serán subvencionados con el 100%

3. 3. Onartutako aurrekontuaren % 100eko dirulaguntza emango zaie proiektuei (betiere 30.000 euroko mugarekin).

4. Diruz lagundu daitekeen azken proiekturako aurrekontu-kreditu nahikorik ez badago, dirulaguntza onartutako aurrekontuaren zenbatekoa baino txikiagoa izan daiteke.

14. artikulua. Hautatzeko eta baloratzeko irizpideak.
1. Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko Saileko Berdintasunerako Zuzendaritza Nagusiak hautatuko ditu diruz lagunduko diren proiektuak, dirulaguntzak emateko eta kuantifikatzeko irizpide hauek kontuan hartuta:

1. irizpidea. Erakunde eskatzailearen datuak (10 puntu, gehienez):
1.1 Erakundeko zuzendaritza-karguetan dauden emakumeen % 40 gutxienez (2 puntu).
1.2 Erakundeak emakumeen eta gizonen berdintasunaren alde egindako ibilbidea, azken 5 urteetan (gehienez 3 puntu).
1.3 Emakumeen eta gizonen berdintasunarekin lotutako guneetan gizartean eta politikan parte hartzea (gehienez 5 puntu).

2. irizpidea. Proiektuaren justifikazioa eta testuingurua (10 puntu, gehienez).
2.1. Proiektua egiteko beharra justifikatzen duen genero-ikuspegia duen diagnostikoa (gehienez 4 puntu).
2.2. Xede duen kolektiboaren eta sektorearen justifikazioa (gehienez 6 puntu).

3. irizpidea. Proiektuaren garapena (gehienez 30 puntu -gutxienez 15 puntu-): Aurkeztutako proiektuaren definizio-maila, kalitatea, edukia, aurkezpena eta koherentzia-maila honako hauei dagokienez:
3.1 Proiektuaren helburuak (gehienez 5 puntu).
3.2 Jarduerak, metodologia, lan-prozesua eta bideragarritasuna (gehienez 10 puntu).
3.3. Aurrekontua. Jarduketa bakoitzerako aurreikusitako gastuen xehetasuna, aurreikusitako diru-sarrerekin eta aurrekontuaren koherentzia helburuak lortzeari dagokionez (gehienez 5 puntu).
3.4. Sareko lana. Proiektuan parte hartzen duten beste eragile batzuk (gehienez 5 puntu).
3.5. Kontziliazio erantzukiderako eta irisgarritasun unibertsalerako neurriak (gehienez 5 puntu).

del importe del presupuesto admitido (con el límite, en todo caso, de 30.000 euros).

4. En el caso en que para el último proyecto subvencionable no hubiera crédito presupuestario suficiente, el importe subvencionado podrá ser inferior al presupuesto admitido.

Artículo 14. Criterios de selección y valoración.
1. La Dirección General de Igualdad, del Departamento de Empleo, Cohesión Social e Igualdad seleccionará los proyectos que serán apoyados teniendo en cuenta como criterios para la concesión y cuantificación de las subvenciones los siguientes:

Criterio 1. Datos de la entidad solicitante (hasta 10 puntos):
1.1 Al menos un 40% de mujeres en los cargos directivos de la entidad (2 puntos).
1.2 Trayectoria de la entidad en favor de la igualdad de mujeres y hombres, referida a los últimos 5 años (hasta 3 puntos).
1.3 Participación social y política en espacios relacionados con la igualdad de mujeres y hombres (hasta 5 puntos).

Criterio 2. Justificación y contextualización del proyecto (hasta 10 puntos).
2.1. Diagnóstico con perspectiva de género que justifique la necesidad de realizar el proyecto (hasta 4 puntos).
2.2. Justificación del colectivo y sector al que se dirige (hasta 6 puntos).

Criterio 3. Desarrollo del proyecto, (hasta 30 puntos -mínimo 15 puntos-): El grado de definición, calidad, contenido, presentación y coherencia del proyecto presentado respecto a:
3.1 Objetivos del proyecto (hasta 5 puntos).
3.2 Actividades, metodología, proceso de trabajo y viabilidad (hasta 10 puntos).
3.3. Presupuesto. Detalle de los gastos previstos por cada una de las actuaciones, junto con los ingresos previstos y coherencia del presupuesto con respecto a la consecución de los objetivos (hasta 5 puntos)
3.4. Trabajo en red. Otros agentes involucrados en el proyecto (hasta 5 puntos).
3.5. Medidas de conciliación corresponsable y accesibilidad universal (hasta 5 puntos).

Criterio 4. Interseccionalidad (hasta 5 puntos).

4. irizpidea. Intersekzionalitatea (gehienez 5 puntu).

5. irizpidea. Jarraipen- eta ebaluazio-sistema (gehienez 5 puntu).

6. irizpidea. Proiektuak emakumeen eta gizonen berdintasunaren sustapenean izan dezakeen eragina. Espero diren emaitzak (gehienez 10 puntu –gutxienez 5 puntu–).

7. irizpidea. Ahalmen eraldatzailea eta/edo berrikuntzakoa. Ideia berriak, egiteko modu berriak eta metodologia eraldatzaileak berdintasunerako sektore estrategikoetan (gehienez 30 puntu -gutxienez 15 puntu-).

2. Proiektuek edo jarduerek gutxienez 15 puntu lortu behar dituzte 3. eta 7. irizpideetan, hurrenez hurren, dirulaguntza jasotzeko.
Era berean, proiektuek edo jarduerek gutxienez 5 puntu lortu behar dituzte 6. irizpidean, dirulaguntza jaso ahal izateko.

15. artikulua. Ekintzak gauzatzea eta justifikatzea.
1. Proiektuak 2024ko urtarrilaren 1etik 2024ko abenduaren 31ra bitartean gauzatu beharko dira.
Kontratua gauzatzeko gehieneko epea, hala badagokio, luzapen-ebazpenean ezarritakoa izango da.
2. Garatutako proiektuak justifikatzeko gehieneko epea 2025eko urtarrilaren 31 izango da, edo, hala badagokio, luzapena emateko ebazpenean ezarritakoa.
Diruz lagundutako erakundeek Berdintasunerako Zuzendaritza Nagusiaren aurrean justifikatu beharko dute proiektuaren zenbateko osoa, zeharkako gastuak izan ezik.

16. artikulua. Justifikazioarekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa.
1. Dirulaguntza justifikatzeko, Berdintasunerako Zuzendaritza Nagusiak emandako eredu espezifikoa erabili beharko da nahitaez (_ eranskina). Justifikazio-inprimaki hori, gainera, Bizkaiko Foru Aldundiaren webgunean ere eskuratu ahal izango da (https://web.bizkaia.eus/es). Eredu hori erabiltzen ez bada, justifikazio hori ez aurkeztutzat joko da.

2. Egindako proiektuaren justifikazio-memoriak (_ eranskina) honako atal hauek ditu:
a) Jardueraren memoria. Proiektuaren garapenari eta balorazioari buruzko datuak biltzen ditu. Atal honetan sartuko dira,

Criterio 5. Sistema de Seguimiento y Evaluación (hasta 5 puntos).

Criterio 6. Impacto potencial del proyecto en la promoción de la Igualdad de mujeres y hombres. Resultados esperados. (hasta 10 puntos -mínimo 5 puntos-).

Criterio 7. Potencial transformador y/o de innovación. Nuevas ideas, nuevas formas de hacer y metodologías transformadoras en sectores estratégicos para la igualdad (hasta 30 puntos -mínimo 15 puntos-).

2. Los proyectos o actividades han de obtener un mínimo de 15 puntos en los Criterios 3 y 7 respectivamente para ser subvencionables.
Asimismo, los proyectos o actividades han de obtener un mínimo de 5 puntos en el Criterio 6 para ser subvencionables.

Artículo 15. Ejecución de las acciones y justificación.
1. Los proyectos deberán ejecutarse entre el 1 de enero de 2024 y el 31 de diciembre de 2024.
El plazo máximo de ejecución será, en su caso, el establecido en la resolución de prórroga.
2. El plazo máximo para la justificación de los proyectos desarrollados será el 31 de enero de 2025 o, en su caso, el establecido en la resolución de concesión de prórroga.
Las entidades subvencionadas deberán justificar ante la Dirección General de Igualdad el importe total del proyecto, excepto los gastos indirectos.

Artículo 16. Documentación a presentar con la justificación.
1. La justificación de la subvención deberá presentarse utilizando obligatoriamente el modelo específico facilitado por la Dirección General de Igualdad correspondiente al año en curso (anexo _ ). Este impreso de justificación estará además disponible para su cumplimentación en la página web de la Diputación Foral de Bizkaia (https://web.bizkaia.eus/es). En caso de no utilización de dicho modelo, se tendrá dicha justificación por no presentada.
2. La memoria justificativa del proyecto realizado (anexo _ ) incluye los siguientes apartados:
a) Memoria de actividad. Incluye datos sobre el desarrollo y valoración del proyecto.

halaber, proiektuan erabili diren publizitatea eta materialak, hau da, diruz lagundutako proiektua hedatzeko eta zabaltzeko landutako elementuak, non Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Berdintasunerako Zuzendaritzaren lankidetza jaso behar den. Proiektua ikerketa-proiektu bat bada, horren kopia bat ere sartuko da euskarri digitalean.

b) Garatutako jardueren kostua justifikatzen duen memoria ekonomikoa, diruz lagundutako proiektua dela-eta egindako gastu guztien zerrenda, honako datu hauekin: hartzekoduna eta dokumentua, zenbatekoa, jaulkipen-data eta ordainketa-data, eta dagokion jarduera edo jarduerak.

Jarduera finantzatzeko lortutako beste diru-sarrera batzuen zerrenda ere jaso beharko da, zenbatekoa eta jatorria adierazita.

c) Diruz lagundutako proiektua dela-eta egindako gastu guztien fakturak edo egiaztagirien kopia soilak, eskaneatuta, zeharkako gastuei dagokien ehunekoa izan ezik (diruz lagun daitezkeen langileen zuzeneko kostuen % 15 gehienez). Bizkaiko Foru Aldundiaren dirulaguntzari egotzitako faktura guztiak erantsi beharko dira.
Fakturak proiektua gauzatzen den urte naturalaren barruan jaulki beharko dira, eta ekintzak justifikatzeko epea amaitu baino lehen ordaindu beharko dira.

d) 12.5 artikuluaren kasuan, aurkeztutako eskaintzen artean hautatzea, efizientzia- eta ekonomia-irizpideen arabera, eta berariaz justifikatu beharko da hautaketa-memoria batean, proposamen ekonomiko onuragarriena ez denean.

3. Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko Saileko Berdintasunerako Zuzendaritza Nagusiak beharrezkotzat jotzen duen dokumentazio eta informazio osagarri guztia eskatu ahal izango die erakunde eskatzaileei.

También se incluirán en este apartado la publicidad y materiales que se hayan utilizado en el proyecto, es decir, los elementos elaborados para la difusión y divulgación del proyecto subvencionado, donde debe constar la colaboración de la Diputación Foral de Bizkaia y de la Dirección para la Igualdad. En caso de que el proyecto consista en un proyecto de investigación, se incluirá también una copia del mismo en soporte digital.

b) Memoria económica justificativa del coste de las actividades desarrolladas, que incluye una relación de todos los gastos realizados con ocasión del proyecto subvencionado, con identificación de la persona acreedora y del documento, su importe, fecha de emisión y fecha de pago y actividad o actividades a que corresponde.
También deberá incluir la relación de otros ingresos obtenidos para la financiación de la actividad, indicando el importe y su procedencia.

c) Las facturas o copia simple de los justificantes, escaneadas, de todos los gastos realizados con ocasión del proyecto subvencionado, exceptuando el porcentaje correspondiente a gastos indirectos (máximo del 15% de los costes directos de personal subvencionable). Deberán adjuntarse todas las facturas imputadas a la subvención de la Diputación Foral de Bizkaia. Las facturas deberán estar emitidas dentro del año natural de ejecución del proyecto y deberán ser abonadas antes de la finalización del plazo para la justificación de las acciones.

d) En el supuesto del artículo 12.5, la elección entre las ofertas presentadas conforme a criterios de eficiencia y economía, debiendo justificarse expresamente en una memoria de elección cuando no recaiga en la propuesta económica más ventajosa.

3. La Dirección General de Igualdad, del Departamento de Empleo, Cohesión Social e Igualdad podrá requerir a las entidades solicitantes cuanta documentación e información complementaria considere necesaria.

17. artikulua. Ez-betetzeak eta itzultzeak.

1. Dirulaguntza jasotzen duten erakundeek dekretu honetan emate ebazpenean edo gainerako arau aplikagarrietan ezarritako baldintzetako bat betetzen ez badute edo, halaber, baldin eta justifikazioa egiteko betebeharra osorik edo zati baten ez badute betetzen, kasuan kasu egokia izango den itzultzeko prozedurari ekingo zaio eta erakunde onuradunek derrigorrez itzuli beharko dute, hala osorik nola zati baten, jaso dituzten zenbateko horiek eta baita horiei dagozkien berandutza korrituak ere, egokiak izango diren gainerako ekintzak gorabehera. Kopuru horiek sarrera publikotzat hartuko dira.

2. Dirulaguntza gisa jasotako kopuruak eta 5/2005 Foru Arauaren 33. artikuluan ezarritako berandutze-interesak (dirulaguntza ordaindu zenetik itzulketaren bidezkotasuna erabakitzen den datara arte) itzuli beharko dira, osorik edo zati bat, kasu hauetan:

a) Dirulaguntza jasotzeko behar diren baldintzak faltsutuz edo dirulaguntza jasotzea galaraziko luketen datuak ezkutatuz jaso bada dirulaguntza.

b) Proiektuaren helburua erabat, zati batean edo epez kanpo ez betetzea, edo dirulaguntza ematea eragin duen jokabidea ez hartzea.

   Ez-betetzea egongo da, baldin eta, diruz lagundutako ekintzak egin direla justifikatzeko ezarritako epeak igaro ondoren, ekintza horien gauzatze osoa aurreikusitako moduan egiaztatu eta justifikatu ez bada, edo egindako eta justifikatutako gastua dirulaguntza emateko foru-aginduan onartutako kostua baino txikiagoa izan bada.

   Hala ere, halakoetan betetzat ematen badira dirulaguntzen helburua eta xedea, bada, berriro doituko da dirulaguntzaren zenbatekoa, benetan justifikatu eta/edo burututako dirulaguntzaren zenbatekoaren arabera. Horretarako, dirulaguntza emateko ezarritako irizpide eta mugen araberako proportzionaltasun-irizpidea deritzona erabiliko da.

   Bestetik, martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Dirulaguntzei buruzko foru arauaren Erregelamenduaren 71. artikuluan xedatutakoarekin bat etorrita, dirulaguntzaren onuradunak aurkeztutako

Artículo 17. Inclumplimientos y reintegros.

1. En el supuesto de que las entidades beneficiarias de las subvenciones incumplieran cualquiera de las condiciones establecidas en el presente decreto o en la resolución de otorgamiento y demás normativa de aplicación, así como en el supuesto de que incumplieran total o parcialmente la obligación de justificación, se instruirá el correspondiente procedimiento de reintegro, quedando las entidades beneficiarias obligadas a la devolución total o parcial de las cantidades percibidas con sus correspondientes intereses de demora, sin perjuicio de las demás acciones que procedan. Dichas cantidades tendrán la consideración de ingresos públicos.

2. Procederá el reintegro de las cantidades percibidas en concepto de subvención, con la exigencia de intereses de demora previstos en el artículo 33 de la Norma Foral 5/2005, desde el momento del pago de la subvención hasta la fecha en que se aprueba la procedencia del reintegro, parcial o total, en los siguientes casos:

a) Obtención de la subvención falseando las condiciones requeridas para ello u ocultando aquéllas que lo hubieran impedido.

b) Incumplimiento total, parcial o extemporáneo del objetivo del proyecto o la no adopción del comportamiento que fundamentan la concesión de la subvención.

   Existirá incumplimiento si, transcurridos los plazos establecidos para la justificación de la realización de las acciones subvencionadas, no se hubiera acreditado y justificado en su totalidad su ejecución en la forma prevista o en el supuesto de que el gasto realizado y justificado hubiera sido inferior al coste aprobado en la Orden Foral de concesión.

   No obstante, si en estos supuestos se entienden cumplidas la finalidad y objeto de las ayudas, se procederá al reajuste de la cuantía de la subvención en función de los costes efectivamente justificados y/o ejecutados, aplicándose el criterio de proporcionalidad en relación con los criterios y límites establecidos para su otorgamiento.

   Asimismo, de conformidad con el artículo 71 del Reglamento de la Norma Foral de Subvenciones, aprobado por Decreto Foral

justifikazioan adierazten badu dirulaguntza emateko kontuan hartu ziren baldintzetan aldaketak egon direla, eta aldaketa horiek ebazpena aldatzea eragin ahal zutela eta aldaketak onartzeko aurretik bete beharreko baimen administratiboko izapidea bete gabe egin direla, dirulaguntza eman duen organoak aurkeztutako justifikazioa onar dezake, betiere onartze horrek hirugarrenen eskubideei kalterik eragiten ez badie; hala ere, horrek ez du salbuetsiko onuraduna dirulaguntzen foru arauaren arabera izan ditzakeen zehapenetatik.

c) Justifikatzeko betebeharra ez betetzea edo behar adina ez justifikatzea.
d) Indarrean dagoen arautegian jasotako zabalkunde-neurriak hartzeko betebeharra ez betetzea.
e) Indarreko araudian aurreikusitako finantza-egiaztapen eta -kontroleko jarduketei aurka egitea, aitzakiak jartzea, oztopoak jartzea edo uko egitea, bai eta kontabilitate-, erregistro- edo dokumentu-kontserbazioko betebeharrak ez betetzea ere, baldin eta horren ondorioz ezin bada egiaztatu jasotako funtsen erabilera, helburua betetzen dela, diruz lagundutako jardueren errealitatea eta erregulartasuna, edo helburu bererako dirulaguntzak, laguntzak, diru-sarrerak edo baliabideak pilatzen direla, edozein administrazio edo erakunde publiko edo pribatutatik, nazionaletatik, Europar Batasunetik edo nazioarteko erakundeetatik.

f) Administrazioak erakunde onuradunei ezarritako betebeharrak ez betetzea, bai eta dirulaguntza ematerakoan beren gain hartutako konpromisoak ere, betiere helburuak lortzeko, jarduera gauzatzeko, proiektua gauzatzeko edo dirulaguntza emateko oinarri den jokabidea hartzeko moduari eragiten badiote edo horri buruzkoak badira.

g) Dirulaguntza ematerakoan Administrazioak erakunde onuradunei ezarritako betebeharrak eta eurek hartu dituzten konpromisoak ez betetzea (aurreko kasuak ez direnak), baldin eta horren ondorioz ezin bada egiaztatu diruari zer erabilera eman zaion, dirulaguntzaren helburua bete den, diruz

34/2010 de 23 de marzo, cuando la persona beneficiaria de la subvención ponga de manifiesto en la justificación que se han producido alteraciones de las condiciones tenidas en cuenta para la concesión de la misma que hubieran podido dar lugar a la modificación de la resolución, habiéndose omitido el trámite de autorización administrativa previa para su aprobación, el órgano concedente de la subvención podrá aceptar la justificación presentada, siempre y cuando tal aceptación no suponga dañar derechos de terceros, y sin que ello exima a la persona beneficiaria de las sanciones que puedan corresponder con arreglo a la Norma Foral de Subvenciones.
c) Incumplimiento de la obligación de justificación o la justificación insuficiente.
d) Incumplimiento de la obligación de adoptar las medidas de difusión contenidas en la normativa vigente.
e) Resistencia, excusa, obstrucción o negativa a las actuaciones de comprobación y control financiero previstas en la normativa vigente, así como el incumplimiento de las obligaciones contables, registrales o de conservación de documentos cuando de ello se derive la imposibilidad de verificar el empleo dado a los fondos percibidos, el cumplimiento del objetivo, la realidad y regularidad de las actividades subvencionadas, o la concurrencia de subvenciones, ayudas, ingresos o recursos para la misma finalidad, procedentes de cualesquiera Administraciones o entes públicos o privados, nacionales, de la Unión Europea o de organismos internacionales.
f) Incumplimiento de las obligaciones impuestas por la Administración a las entidades beneficiarias, así como de los compromisos por éstas asumidos, con motivo de la concesión de la subvención, siempre que afecten o se refieran al modo en que se han de conseguir los objetivos, realizar la actividad, ejecutar el proyecto o adoptar el comportamiento que fundamenta la concesión de la subvención.
g) Incumplimiento de las obligaciones impuestas por la Administración a las entidades beneficiarias, así como de los compromisos por éstas asumidos, con motivo de la concesión de la subvención, distintos de los anteriores, cuando de ello se

lagundutako jardueren errealitatea eta erregulartasuna, edo helburu bererako dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide gehiago dituen, beste administrazio batek, erakunde pribatu nahiz publikoek (estatukoak, Europako Batasunekoak nahiz nazioarteko erakundeak) emanak.

h) Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Itunaren 107. artikulutik 109.era bitartean xedatutakoa dela bide, dirulaguntza itzuli beharra dakarren erabakia hartzea.

i) Dekretu honetan eta indarrean dagoen araudian aurreikusitako gainerako kasuetan.

3. Itzultzeko prozedura Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko Saileko Berdintasuneko Zuzendaritza Nagusiak hasi eta izapidetuko du, eta Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko Saileko titularrak ebatziko du, erakunde onuradunari entzun ondoren.
Arau aplikagarriak ez betetzeagatik emandako dirulaguntzak itzultzeko prozedura ebazteko gehieneko epea hamabi (12) hilabetekoa izango da, prozedura hasten den egunetik zenbatzen hasita.

18. artikulua. Erakunde onuradunaren ekimenez dirulaguntza itzultzea.
Bizkaiko Foru Aldundiaren martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren 76. artikuluan xedatutakoaren arabera, borondatezko itzulketatzat hartzen da erakunde onuradunak Administrazioaren aldez aurreko errekerimendurik gabe egiten duena.
Borondatezko itzulketa egiten denean, Administrazioak berandutze-interesak kalkulatuko ditu, Dirulaguntzei buruzko Foru Arauaren 34. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.
Erakunde onuradunak berak eskatuta, foru-dirulaguntza itzultzeko, dagokion ordainketa-gutuna aurkeztu beharko da, Bizkaiko Foru Aldundiaren eredu ofizialaren arabera, eta Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailean emango da.

19. artikulua. Ebazpena aldatzea.
Dirulaguntza emateko ebazpena eman ondoren, eta dirulaguntza emateko kontuan hartutako baldintzak aldatzen badira diruz lagundutako jarduerak egiteko ezintasun teknikoa dela-eta, erakunde onuradunak

derive la imposibilidad de verificar el empleo dado a los fondos percibidos, el cumplimiento del objetivo, la realidad y regularidad de las actividades subvencionadas, o la concurrencia de subvenciones, ayudas, ingresos o recursos para la misma finalidad, procedentes de cualesquiera Administraciones o entes públicos o privados, nacionales, de la Unión Europea o de organismos internacionales.

h) La adopción, en virtud de lo establecido en los artículos 107 a 109 del Tratado de Funcionamiento de la Unión Europea, de una decisión de la cual se derive una necesidad de reintegro.

i) En los demás supuestos previstos en el presente decreto y normativa vigente.

3. El procedimiento de reintegro se iniciará y tramitará por la Dirección General de Igualdad del Departamento de Empleo, Cohesión Social e Igualdad y será resuelto por la persona titular del Departamento de Empleo, Cohesión Social e Igualdad, previa audiencia a la entidad beneficiaria.
El plazo máximo para resolver el procedimiento para la devolución de las subvenciones concedidas por incumplimiento de las normas aplicables será de doce (12) meses a partir de la fecha de su iniciación.

Artículo 18. Devolución de la subvención a iniciativa de la entidad beneficiaria.
De conformidad con lo dispuesto en el artículo 76 del Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 34/2010, de 23 de marzo, se entiende por devolución voluntaria aquella que es realizada por la entidad beneficiaria sin el previo requerimiento de la Administración.
Cuando se produzca la devolución voluntaria, la Administración calculará los intereses de demora de acuerdo con lo previsto en el artículo 34 de la Norma Foral de Subvenciones.
La devolución de la subvención foral a instancia de la propia entidad beneficiaria se deberá realizar mediante la correspondiente carta de pago, según modelo oficial de la Diputación Foral de Bizkaia, que se expedirá en el Departamento de Empleo, Cohesión Social e Igualdad.

Artículo 19. Modificación de la resolución.
Una vez recaída resolución de concesión, y en el supuesto de que se produzca una alteración de las condiciones tenidas en cuenta para la concesión de la subvención por imposibilidad técnica para realizar las

ebazpena aldatzeko eskatu beharko du, hasieran aurkeztutako aurrekontuan edo proiektuan aldaketak egin direlako edo luzatzeko beharra dagoelako. Luzapen hori baimendu ahal izango da, baldin eta hirugarren pertsonen eskubideei kalterik eragiten ez badie.
Dirulaguntza aldatzeko eskabidea nahitaez _ eranskinak erabiliz eta egoitza elektronikoaren bidez aurkeztu beharko da.
Aldatzeko edo luzatzeko eskaera aurkezteko azken eguna 2024ko ekainaren 3a izango da.
Luzapen-eskaera foru-agindu bidez onartzen bada, jarduera edo gauzatu beharreko aurrekontua aldatzeko eskaera erregistratzeko azken eguna 2024ko urriaren 7a izango da.

actividades subvencionadas, la entidad beneficiaria deberá solicitar la modificación de la resolución, motivada por cambios en el presupuesto o proyecto presentado inicialmente o necesidad de prórroga, que podrá ser autorizada siempre que no dañe derechos de terceras personas.
La solicitud de modificación de la subvención deberá presentarse utilizando obligatoriamente los anexos _ y a través de la sede electrónica.
El último día para la presentación de la solicitud de modificación o prórroga será el 3 de junio de 2024.
En el caso de aceptación mediante Orden Foral de la solicitud de prórroga, el último día para registrar la solicitud de modificación de la actividad o del presupuesto a ejecutar será el 7 de octubre de 2024.

20. artikulua. Dirulaguntzen bateragarritasuna.
Diruz lagundutako proiektuak ezin izango dira beste erakunde eta/edo entitate batzuekin batera finantzatu; beraz, dekretu honetan arautuko dirulaguntzak ez dira inola ere bateragarriak izango helburu bererako beste administrazio edo erakunde publiko edo pribatuetatik, estatukoetatik, Europar Batasunekoetatik edo nazioarteko erakundeetatik jasotako edo erdietsitako dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideekin.
Era berean, ez dira bateragarriak izango Bizkaiko Foru Aldundiak helburu bererako emandako beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin.

Artículo 20. Compatibilidad de subvenciones.
Los proyectos subvencionados no podrán estar cofinanciados con otras Instituciones y/o Entidades, por lo tanto, las subvenciones reguladas en este decreto en ningún caso serán compatibles con las subvenciones, ayudas, ingresos o recursos para la misma finalidad, procedentes de cualesquiera Administraciones o entes públicos o privados, estatales, de la Unión Europea o de organismos internacionales, que por los mismos hechos hayan obtenido o puedan obtener.
Tampoco serán compatibles con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos para la misma finalidad concedidas por la propia Diputación Foral de Bizkaia.

21. artikulua. Zehapen-araubidea.
Erakunde onuradunak indarreko araudian aurreikusitako arau-hausteren bat egiten badu, zehapen-espedientea ireki ondoren zehatuko da, urriaren 1eko 39/2015 Legean xedatutakoaren arabera, Administrazio Publikoen Zigortzeko Ahalmena arautzen duen Eusko Jaurlaritzaren otsailaren 20ko 2/1998 Legean eta 5/2005 Foru Arauan ezarritakoaren arabera.

Artículo 21. Régimen sancionador.
La comisión por parte de la entidad beneficiaria de alguna de las infracciones previstas en la normativa vigente será sancionada, previa incoación de expediente sancionador, conforme a lo dispuesto en la Ley 39/2015, de 1 de octubre, según lo establecido en la Ley 2/1998, de 20 de febrero, del Gobierno Vasco, por la que se regula la Potestad Sancionadora de las Administraciones Públicas y en la Norma Foral 5/2005.

22. artikulua. *Datu pertsonalen babesa.*

1. Pertsona interesdunak emandako datuak foru-dekretutik eratorritako prozedurak kudeatzeko erabiliko dira, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduan, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoan, eta 95/46/EE Zuzentaraua (Datuak babesteko Erregelamendu

Artículo 22. . *Protección de datos de carácter personal.*
1. Los datos aportados por la persona interesada se utilizarán para la gestión de los procedimientos que se deriven del decreto foral, de acuerdo con lo previsto en el Reglamento (UE) número 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo de 27 de abril de 2016 relativo a la protección de las personas físicas en lo que respecta al tratamiento de datos personales y a la libre circulación de estos datos y por el que se deroga la Directiva 95/46/CE (Reglamento general de protección de datos) y en la Ley Orgánica

Orokorra) indargabetzen duenean, eta abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan, Datu Pertsonalak Babesteari eta Europako araudia egokitzen eta osatzen duen eskubide digitalak bermatzeari buruzkoan, aurreikusitakoaren arabera

2. Datu horiek ez dira inola ere hirugarren alderdiei tratatuko edo lagako, ez bada ukitutako pertsonaren zalantzarik gabeko baimenarekin, edo lehen adierazitako araudian aurreikusitako kasuetan.

3. Aipatutako araudian xedatutakoa betez, interesdunak tratamenduaren arduradunaren aurrean baliatu ahal izango ditu datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko («ahazteko eskubidea»), aurka egiteko, tratamendua mugatzeko eta datuak eramangarriak izateko eskubideak, eta tratamendu automatizatuan soilik oinarritutako erabaki baten xede ez izateko eskubideak, profilak egitea barne, baldin eta tratamendu horretan ondorio juridikoak baditu edo antzeko eragina badu. Era berean, emandako baimena edozein unetan baliogabetu ahal izango du.

Era berean, eskubidea du Datuak Babesteko Kontrol Agintaritzan erreklamazio bat aurkezteko, eta informazio hori zabaldu egin daiteke Bizkaiko Foru Aldundiaren web orri instituzionaleko datuen babesari buruzko atalean (https://web.bizkaia.eus/es/proteccion-de-datos).

23. artikulua. Araudi orokorra.
Dekretu honetan ezarritako dirulaguntzak dekretu honetan eta dirulaguntza emateko foru-aginduetan xedatutakoaren arabera arautuko dira.

Dekretu honetan aurreikusi gabekoari dagokionez, maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Araua, Dirulaguntzen Erregelamendua onartzen duen martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretua eta, subsidiarioki, urriaren 1eko 39/2015 Legea eta administrazio-zuzenbideko eta zuzenbide pribatuko gainerako arauak aplikatuko dira.

3/2018, de 5 de diciembre, de protección de datos personales, y garantía de derechos digitales que adapta y completa la normativa europea.

2. En ningún caso los referidos datos serán objeto de tratamiento o de cesión a terceras partes, si no es con el consentimiento inequívoco de la persona afectada, o en los supuestos previstos en la normativa antes indicada.

3. En cumplimiento de lo dispuesto en la citada normativa, la persona interesada podrá ejercer ante la responsable del tratamiento sus derechos de acceso, rectificación, supresión («derecho al olvido»), oposición, limitación del tratamiento, a la portabilidad de sus datos, y a no ser objeto de una decisión basada únicamente en el tratamiento automatizado, incluida la elaboración de perfiles, que produzca efectos jurídicos en él o le afecte significativamente de modo similar. De igual modo, podrá revocar el consentimiento prestado en cualquier momento.

También dispone del derecho a presentar una reclamación ante la Autoridad de Control de Protección de Datos, pudiendo ampliar esta información en el apartado dedicado a la protección de datos de la página web institucional de la Diputación Foral de Bizkaia (https://web.bizkaia.eus/es/proteccion-de-datos.

Artículo 23. Normativa general.
Las subvenciones establecidas en el presente decreto se regirán por lo dispuesto en el mismo y en las Órdenes Forales de otorgamiento.
En lo no previsto en el presente decreto, será de aplicación la Norma Foral 5/2005 de 31 de mayo, y el Decreto Foral 34/2010, de 23 de marzo, por el que se aprueba el Reglamento de Subvenciones, y subsidiariamente la Ley 39/2015, de 1 de octubre, y demás normas de derecho administrativo y derecho privado.

**I. ERANSKINA**

**DIRULAGUNTZARAKO ESKABIDEA EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNAREN ARLOAN PROIEKTU ERALDATZAILEAK EGITEKO**

___________________________

ANEXO II

SOLICITUD DE SUBVENCIÓN PARA LA REALIZACIÓN DE PROYECTOS TRANSFORMADORES EN MATERIA DE IGUALDAD DE MUJERES Y HOMBRES

**Gehienez 15.000 hitz** / Máximo 15.000 palabras

**Nahitaez bete beharreko eredua, egoitza elektroniko bakoitzeko aurkeztu beharrekoa/**
Modelo de obligado cumplimiento a presentar por sede electrónica

**2023ko deialdia** / Convocatoria 2023

**PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA**
DESCRIPCIÓN DEL PROYECTO

Inprimaki honen helburua da dirulaguntzarako aurkezten den proiektuaren/ekintzaren inguruko informazio guztia jasotzea. Bertan jasotzen dira puntuetarako kontuan hartuko diren atal guztiak.

Eskatzen diren datuak aurkezten den proiektuari buruzkoak dira; ez, ordea, erakunde eskatzailearen beste proiektu edo jarduerei buruzkoak.

Eranskin hau betetzeko orduan, gehienez 15.000 hitz erabili ahal izango dira. Atal guztiak bete behar dira, garatuko ez direnak izan ezik; azken horiei ez zaie punturik emango. Ez da baloratuko dokumentu honetan jasota ez dagoen edukirik, hala nola web orrietarako estekak edo beste dokumentu edo euskarri batzuk.

Atalak betetzen hasi aurretik atal bakoitzak duen azalpena arretaz irakurtzea komeni da.

Este impreso tiene por objeto recoger toda la información relativa al proyecto que se presenta a subvención. Se recogen en el mismo todos los apartados puntuables.

Las cuestiones que se solicitan se refieren al proyecto que se presenta y no a otros proyectos o actividades de la entidad solicitante.

Para rellenar este anexo se podrá emplear hasta un máximo de 15.000 palabras. Se deben cumplimentar todos los apartados, salvo los que no se vayan a desarrollar, los cuales no se puntuarán. No se valorará ningún contenido que no esté recogido en este documento, tales como enlaces a páginas web u otros documentos o soportes.

Antes de comenzar a rellenar se recomienda leer detenidamente la explicación de cada apartado.

## **0. PROIEKTUA AURKEZTEKO DATUAK** / DATOS DE PRESENTACIÓN DEL PROYECTO

**Erakunde eskatzailea** / Entidad solicitante:

**Proiektuaren izena** / Título del proyecto:

**Harremanetarako pertsona** / Persona de contacto:

**Harremanetarako telefonoa eta helbide elektronikoa** / Teléfono y dirección electrónica de contacto:

**Laburpena (deskribatu gehienez 1000 karakteretan programaren edukia)** / Resumen (describir en un máximo de 1.000 caracteres el contenido del programa):

## 1. **ERAKUNDE ESKATZAILEAREN DATUAK** / DATOS DE LA ENTIDAD SOLICITANTE ……………………………………………………………………………………………………………………… **gehienez 10 puntu** / hasta 10 puntos

**Bazkide kopurua sexu-generoz bereiztuta /** Nº de personas socias desagregado por sexo-género:

| Emakumea/ Mujer | | Gizona/ Hombre | | Bestebatzuk/ Otros | | Guztira/ Total | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|

**Adierazi, halakorik balego, lan egiten dutenen kopurua eta aipatu soldatapekoak (dauzkaten kontratu motak zehaztuz) eta boluntarioak, sexu-generoaren arabera banakaturik** / Si hubiera, indicar el número de personas que trabajan, de forma remunerada (especificar tipos de contrato) y/o voluntaria, desagregado por sexo-género:

| |
|---|
| |

**1.1 Adierazi zenbat emakume eta gizon dauden erakundearen zuzendaritza-karguetan. Zuzendaritza-maila edo -organo desberdinak badaude, eman guztien informazioa, sexu-generoaren arabera bereizia** / Indicar el número de mujeres y hombres que ocupan los cargos de dirección en la entidad. En caso de que existan diferentes niveles u órganos directivos, recoger la información de todos ellos desagregada por sexo-género: ……………………………………………………………………………………………………………………… **gehienez 2 puntu** / hasta 2 puntos

Presidentea / Presidencia:

| Emakumea/ Mujer | | Gizona/ Hombre | | Beste batzuk/ Otros | |
|---|---|---|---|---|---|

Zuzendaritza-organoa / Órgano de Dirección: (organoa izendatu / nombrar el órgano):

| Emakumea/ Mujer | | Gizona/ Hombre | | Beste batzuk/ Otros | |
|---|---|---|---|---|---|

Zuzendaritza-organoa / Órgano de Dirección: (organoa izendatu / nombrar el órgano):

| Emakumea/ Mujer | | Gizona/ Hombre | | Beste batzuk/ Otros | |
|---|---|---|---|---|---|

**1.2 Adierazi erakundeak berdintasunaren alde egindako ibilbidea (garatutako proiektuak, hartu dituen neurriak barnera zein kanpora begira, eta abar)** / Indicar la trayectoria de la entidad en favor de la igualdad de mujeres y hombres (proyectos realizados, medidas llevadas a cabo a nivel interno y externo, etc.) ………………………………………………………………………………………………………………………**gehienez 3 puntu** / hasta 3 puntos

| |
|---|
| |

**1.3 Adierazi erakundeak parte-hartze sozial eta politikoa gauzatzen duen partaidetza-kontseiluetan, herritarren plataformetan, koordinatzaileetan eta abarretan. Zehaztu zeinetan eta noiztik.** / Indicar si la entidad ejerce participación social y política en espacios relacionados con la igualdad de mujeres y hombres, como los Consejos de Participación, plataformas ciudadanas, coordinadoras, etc. Señalar dónde y desde cuándo ……………………………………………………………………………………………………………… **gehienez 5 puntu** / hasta 5 puntos

| |
|---|
| |

## 2. PROIEKTUAREN TESTUINGURUA ETA JUSTIFIKAZIOA / JUSTIFICACIÓN Y CONTEXTUALIZACIÓN DEL PROYECTO ………………………………………………………………………………………………… **gehienez 10 puntu** / hasta 10 puntos

| | |
|---|---|
| Proiektua garatuko den errealitatera egokitutako **diagnostikoa eta justifikazioa** egin behar dira. Horretarako, emakume eta gizonen egoerari buruzko datuak eman behar dira, bai eta jardungo edo esku hartuko den eremuko desberdintasunei buruzkoak ere. Era berean, proiektuaren egokitasunaren arrazoiak azaldu eta argudiatu behar dira.<br><br>Proiektuak diagnostikoan eta justifikazioan **ikuspegi intersekzionala** txertatzen badu, zehatz-mehatz azaldu. | Realizar un **diagnóstico y justificación** del proyecto adecuada y ajustada a la realidad en la que se va a desarrollar el proyecto, aportando datos sobre la situación de mujeres y hombres; datos de las desigualdades en el ámbito en el que se va a intervenir; explicando y argumentando las razones que explican la idoneidad del proyecto.<br><br>En caso de que el proyecto integre la **perspectiva interseccional** en el diagnóstico y justificación, explicarlo detalladamente. |

2.1. Proiektua egiteko beharra justifikatzen duen genero-ikuspegia duen diagnostikoa (gehienez 4 puntu)/ Diagnóstico con perspectiva de género que justifique la necesidad de realizar el proyecto (hasta 4 puntos).

| |
|---|
| |

2.2. Xede duen kolektiboaren eta sektorearen justifikazioa (gehienez 6 puntu)/ Justificación del colectivo y sector al que se dirige (hasta 6 puntos).

| |
|---|
| |

## 3. PROIEKTUAREN GARAPENA / DESARROLLO DEL PROYECTO …………**gehienez 30 puntu** / hasta 30 puntos

| | |
|---|---|
| Aurrekoarekin bat etorriz, eta proiektuak **ikuspegi intersekzionala** integratzen badu, azaldu nola txertatzen den zeharkako printzipio hori proiektuaren garapenaren atal bakoitzean. | En consonancia con lo anterior, y en caso de que el proyecto integre la **perspectiva interseccional**, explicar cómo se incorpora este principio transversal en cada uno de los apartados del desarrollo del proyecto. |

### 3.1 Helburuak / Objetivos ……………………………………………………………………… **gehienez 5 puntu** / hasta 5 puntos

| | |
|---|---|
| Definitu zehaztasunez eta modu koherentean proiektuaren bidez lortu nahi duzuena, egindako diagnostikoari erantzunez.<br><br>Adierazi **proiektu osoaren helburu nagusia** eta jarduerekin bat etorriko diren **helburu espezifiko bat edo batzuk.** | Se trata de definir lo que se quiere lograr con el proyecto de forma detallada y coherente, respondiendo al diagnóstico realizado.<br><br>Indicar un **objetivo general** de todo el proyecto y uno o varios **objetivos específicos** que se corresponderán con **las actividades.** |

| |
|---|
| |

| |
|---|
| |

**3.2 Jarduerak, lan-metodologia, lan-prozesua eta bideragarritasuna** / Actividades, metodología, proceso de trabajo y viabilidad …………………………………………………………………. **gehienez 30 puntu** / hasta 30 puntos

| | |
|---|---|
| Azaldu garatuko dituzuen **jardueretako bakoitza**, eta adierazi zein herritan egingo den, non, izango duen iraupena, norekin egingo den, etab. Proposatutako jarduera bakoitzerako, metodologia eta lan-prozesua azaldu behar dira. Erabiliko diren komunikazio- eta hedapen-metodoak deskribatu. Horrez gain, halakorik balego, zehaztu proiektuaren alderdi berritzaileak.<br><br>Jarduerak, metodologiak, lan-prozesuak eta berrikuntzek koherenteak izan behar dute, eta proiektuaren helburuei erantzun. | Explicar **cada una de las actividades** que se vayan a desarrollar, concretando localidad, ubicación, duración, con quién se va a trabajar, etc. Explicar la metodología y proceso de trabajo que se va a llevar a cabo para cada una de ellas. Describir los métodos de comunicación y difusión que se emplearán. Además, si hubiera, especificar las cuestiones novedosas del proyecto.<br><br>Las actividades, metodología, proceso de trabajo y los aspectos innovadores deben ser coherentes y responder a los objetivos del proyecto. |
| **Jarduerаren izena /**<br>Nombre de la actividad: | |
| **Iraupena /**<br>Horas de duración: | |
| **Lekua (adierazi herria, espazioa) /**<br>Lugar (indicar localidad, espacio…): | |
| **Datak eta ordutegiak /** Fechas y horarios: | |
| **Prestakuntza-jarduera bat da? /**<br>¿Es una actividad formativa? | ☐ **Bai** / Sí<br>☐ **Ez** / No |
| **Nork egingo du? /**<br>¿Quién la va realizar? | |
| **Proiektu honetarako berariaz kontratatzen al da? /** ¿Se contrata específicamente para este proyecto? | ☐ **Bai** / Sí<br>☐ **Ez** / No |
| **Erantzuna baiezkoa bada, 150 orduko prestakuntza edo esperientzia duzu egiaztatuta? /** En caso afirmativo, ¿tiene 150h de formación o experiencia acreditada? | ☐ **Bai** / Sí<br>☐ **Ez** / No |
| **Jardueraren ezaugarri garrantzitsuak azaldu, honako hauei dagokienez: metodologia, komunikazio- eta hedapen-metodoak, bideragarritasuna, proiektuaren gai berriak (halakorik balego), etab./** Explicar las características relevantes de la actividad en relación a la metodología, métodos de comunicación y difusión, viabilidad, cuestiones novedosas del proyecto (si hubiera), etc. | |

***Koadro hau kopiatu eta itsatsi behar da. Proiektuan sartzen diren jarduerak adina koadro egin behar dira*** / *Hay que copiar y pegar este cuadro tantas veces como actividades se incluyan en el proyecto*

**Kronograma** / Cronograma

| | |
|---|---|
| Adierazi zein den **lanaren kronograma,** jarduera bakoitza egiteko aurrez ikusitako datak aipatzen. | Señalar el **cronograma de trabajo,** indicando las fechas previstas para la ejecución de cada una de las actividades. |

### 3.3. Aurrekontua/ Presupuesto ………………………………………………………….. gehienez 5 puntu / hasta 5 puntos

| | |
|---|---|
| 2. Eranskina Bete. | A Cumplimentar en Anexo 2 |

### 3.4. Sare-lana / Trabajo en red ………………….……………………….…………………. gehienez 5 puntu / hasta 5 puntos

| | |
|---|---|
| Adierazi, halakorik balego, **sareko lan-esperientziak eta lankidetza-esperientziak** beste emakume-elkarte, erakunde edo gizarte-eragile batzuekin **proiektu honen garapenean**, trukea sustatzeko eta sinergiak sortzeko emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzean. | Indicar, si hubiera, **experiencias de trabajo en red y de colaboración** con otras asociaciones de mujeres, entidades o agentes sociales **en el desarrollo de este proyecto**, con el objetivo de promover el intercambio y generar sinergias en la promoción de igualdad de mujeres y hombres. |

| |
|---|
| |

### 3.5. Norberarren, familiaren eta lanaren kontziliazio erantzukidea errazteko eta irisgarritasun unibertsala bermatzeko neurriak/ Medidas para facilitar la conciliación corresponsable personal, familiar y laboral y para garantizar la accesibilidad universal.

……………………………………………………………………………………………………………………… gehienez 5 puntu / hasta 5 puntos

| | |
|---|---|
| Adierazi zer neurri hartuko diren, planifikatuta eta nahita, parte-hartzaileen **familia, lana eta bizitza pertsonala uztartzen laguntzeko**, zainketa-lanak parte hartzeko oztopo izan ez daitezen. | Indicar las medidas que, de forma planificada e intencionada, se van a llevar a cabo para **favorecer la conciliación de la vida familiar, laboral y personal** de las personas participantes, para que los trabajos de cuidado no sean un obstáculo para su participación. |
| Proiektuaren diseinuan eta jardueren garapenean txertatzen diren neurriak dira, ordutegiei, garraioari, kostuari, lekuei, mendekoak/adingabeak zaintzeko zerbitzuei eta abarri dagokienez dauden beharrak betetzeko. | Se trata de medidas que se incorporan en el diseño del proyecto y en el desarrollo de las actividades, para cubrir las diferentes necesidades en relación con horarios, transporte, coste, lugares, servicios de cuidado de personas dependientes/menores, etc. |

| |
|---|
| |

| | |
|---|---|
| Egindako analisi intersekzionalaren ondorioz, **irisgarritasun unibertsala bermatzeko** inplementatuko diren neurriak adierazi (adibidez: garraio egokitua, oztopo arkitektonikorik gabeko lokalak, aldi bereko itzulpena, zeinuen hizkuntzarako interpretazioa, ikus-entzunezko material azpititulatua, irakurketa errazeko formatuko dokumentazioa, etab.). | Indicar las medidas que, como consecuencia del análisis interseccional realizado, van a implementarse **para garantizar la accesibilidad universal** (ejemplos: transporte adaptado, locales sin barreras arquitectónicas, traducción simultánea, interpretación a lengua de signos, material audiovisual subtitulado, documentación en formato de lectura fácil, etc.). |

| |
|---|
| |

**4. Intersektionalitatea** / Interseccionalidad ……………………………………………… **gehienez 5 puntu** / hasta 5 puntos

| | |
|---|---|
| Intersekzionalitatea proiektu osoa bere osotasunean zeharkatzen duen zeharkako printzipiotzat hartu behar da. **Ikuspegi intersekzionalak** aukera ematen du proiektuaren garapen orokorrean egiturazko moduan ikusarazteko eta txertatzeko sexu-generoaz haraindiko identitateen eta kategorien eragina (etnia, klasea, aniztasun funtzionala, sexu-orientazioa/-identitatea, migratzailea/errefuxiatua izatea, adina, nazionalitatea, erlijioa, landa-jatorria, etab.), gainjartzen direnak eta emakumeen bizitzetan eragiten dutenak, diskriminazio- eta zapalkuntza-egoerak sortuz.<br><br>Azaldu nola txertatzen den, nola hartu den kontuan desberdintasuna eta diskriminazioa sortzen duten beste ardatz horiek emakumeengan duten eragina. | La interseccionalidad ha de entenderse como un principio transversal que atraviesa todo el proyecto en su conjunto. La **perspectiva interseccional** permite visibilizar e incorporar de manera estructural en el desarrollo global del proyecto, la incidencia de las diferentes identidades y categorías que más allá del sexo-género (etnia, clase, diversidad funcional, orientación/identidad sexual, condición migrante/refugiada, edad, nacionalidad, religión, procedencia rural, etc.) que se solapan e inciden en las vidas de las mujeres generando situaciones de discriminación y opresión.<br><br>Describir cómo se incorpora, cómo se ha tenido en cuenta el impacto de esos otros ejes generadores de desigualdad y discriminación en las mujeres. |

**5. Jarraipen eta ebaluazio sistemak** / Sistema de seguimiento y evaluación…………………………………………………………………………………………….. **gehienez 5 puntu** / hasta 5 puntos

| | |
|---|---|
| Adierazi nola emango diozuen jarraipena proiektuari eta nola ebaluatuko dituzuen helburuen betetzea, lanaren kalitatea eta eragina. **Bertaratzeari, gogobetetzeari eta eraginari buruzko adierazleak** adierazi eta zehaztu, sartuko badira. | Indicar cómo se va a dar seguimiento al proyecto y cómo se va a evaluar el cumplimiento de los objetivos, la calidad e impacto del trabajo. Indicar y detallar **indicadores de asistencia, satisfacción y de impacto,** en caso de que se vayan a incorporar. |

**6. Proiektuak emakumeen eta gizonen berdintasunaren sustapenean izan dezakeen eragina. Espero diren emaitzak/** Impacto potencial del proyecto en la promoción de la igualdad de mujeres y hombres. Resultados esperados**………………………………………………………**.. **gehienez 10 puntu** / hasta 10 puntos

**7. Ahalmen eraldatzailea eta/edo berrikuntzakoa. Ideia berriak, egiteko modu berriak eta metodologia eraldatzaileak berdintasunerako sektore estrategikoetan/** Potencial transformador y/o de innovación del proyecto………………………………………………………….. **gehienez 30 puntu** / hasta 30 puntos

**II. ERANSKINA**

**EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNA SUSTATZEKO PROIEKTU ERALDATZAILEAREN AURREKONTUA**

____________________________

ANEXO II

PRESUPUESTO DEL PROYECTO TRANSFORMADOR PARA PROMOVER LA IGUALDAD DE MUJERES Y HOMBRES

**Nahitaez bete beharreko eredua, egoitza elektroniko bakoitzeko aurkeztu beharrekoa/**
Modelo de obligado cumplimiento a presentar por sede electrónica

**2023ko deialdia** / Convocatoria 2023

# PROIEKTUAREN AURREKONTUA
PRESUPUESTO DEL PROYECTO

**ERAKUNDEAREN IZENA /** NOMBRE DE LA ENTIDAD:

**PROIEKTUAREN IZENBURUA /** TÍTULO DEL PROYECTO:

## 1. GASTUAK / GASTOS

**Proiektu osoaren gastu guztiak** jaso behar dira (zenbatekoa eta zehaztasuna), kontzeptu hauetan banakatuak:

Se deben recoger **todos los gastos del proyecto** (cuantía y detalle), divididos en los siguientes conceptos:

| **KONTZEPTUA** / CONCEPTO | **ZEHASTASUNA /** DETALLE [1] | **BFA-RI ESKATUTAKO ZENBATEKOA** / IMPORTE SOLICITADO A LA DFB | **ZENBATEKOA** / IMPORTE SUBVENCIONADO POR LA ENTIDAD | **KOSTU OSOA** / COSTE TOTAL |
|---|---|---|---|---|
| 1. **Administrazio eta kudeaketa arloetako zeharkako kostuak** / Costes indirectos administrativos y de gestión [1] | | | | |
| 2. **Pertsonen edo zerbitzuen kontratazioa eta prestakuntza-jarduerak** / Contratación de personas o servicios y actividades formativas [2] | | | | |
| | | | | |
| | | | | |
| | | | | |
| | | | | |
| 3. **Erakundearen soldatapeko langileak** / Personal propio asalariado o voluntario | | | | |
| | | | | |
| | | | | |

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| 4. **Lokalen alokairua, cateringa eta/edo janari-gastuak** / Alquiler de locales y de catering y/o gastos de restauración | | | | |
| 5. **Ostatua eta bidaiak** / Alojamiento y viajes | | | | |
| 6. **Zabalkunderako eta publizitaterako tresnak** / Herramientas para difusión y publicidad | | | | |
| 7. **Beste batzuk** / Otros | | | | |
| **GUZTIRA** / TOTAL | BFA-RI ESKATZEN ZAION DIRULAGUNTZA SUBVENCIÓN QUE SE SOLICITA A LA DFB | | | |

**OHARRAK /** NOTAS:

[1] **Zeharkako kostuak ere diruz lagunduko dira; zeharkako kostutzat joko dira programari edo proiektuari zuzenean lotuta dauden administrazio eta kudeaketa-gastuak, hau da, proiektuaren identifikazio, formulazio, jarraipen eta ebaluaziorako egin beharrekoak (material suntsikorra, telefonoa, argia …). Gastu hauek ez dira agiri bidez frogatu behar, eta ezin izango dute 12.1.b. artikuluaren zuzeneko kostuen %15a gainditu /** Los costes, considerando éstos como los gastos administrativos y de gestión directamente vinculados al programa o proyecto para su identificación, formulación, seguimiento y evaluación (material fungible, teléfono, luz…). Estos gastos no estarán sujetos a justificación documental y no podrán exceder del 15% de los costes directos del artículo 12.1.b.

[2] **Erakunde onuradunak dirulaguntza jaso duen jardueraren zenbatekoaren %75eraino azpikontratatu ahal izango du dirulaguntza jasotzen duen jarduera betearazteko beharrezkoak diren jardueretan, betiere 5/2005 Foru Arauko 27. eta 29. artikuluetan ezarritakoarekin bat etorriz./** La entidad beneficiaria podrá subcontratar, hasta un 75% del importe de la actividad subvencionada, cuantas actividades sean necesarias para la consecución de la actividad subvencionada de conformidad con los artículos 27 y 29 de la Norma Foral 5/2005.

**III. ERANSKINA**

**EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNA SUSTATZEKO PROIEKTU ERALDATZAILEAK EGITEKO DIRULAGUNTZEN JUSTIFIKAZIOA**

---

ANEXO III

JUSTIFICACIÓN DE LAS SUBVENCIONES PARA LA REALIZACIÓN DE PROYECTOS TRANSFORMADORES QUE PROMUEVAN LA IGUALDAD DE MUJERES Y HOMBRES

**Nahitaez egoitza elektroniko bidez aurkeztu beharreko eredua, jarduera-memoria, memoria ekonomikoa eta eskaneatutako fakturak barne** / Modelo de obligado cumplimiento a presentar por sede electrónica, que incluye la memoria de actividad, la memoria económica y las facturas escaneadas

**2023ko deialdia** / Convocatoria 2023

**JARDUERA-MEMORIA**
MEMORIA DE ACTIVIDAD

**ERAKUNDEAREN IZENA /** NOMBRE DE LA ENTIDAD:

| |
|---|
| |

**PROIEKTUAREN IZENBURUA /** TÍTULO DEL PROYECTO:

| |
|---|
| |

**ESPEDIENTE ZENBAKIA /** NÚMERO DE EXPEDIENTE:

| |
|---|
| |

**HARREMANETARAKO PERTSONA ETA TELEFONO ZENBAKIA /** PERSONA DE CONTACTO Y NÚMERO DE TELÉFONO:

| |
|---|
| |

## 1. EGIN DIREN JARDUERAK / ACTIVIDADES REALIZADAS

| | |
|---|---|
| Azaldu zehatz-mehatz garatu diren **jardueretako bakoitza** eta landutako **alderdi zehatzak** ere.<br><br>Jarduera bakoitzean honako hauei buruzko **datuak** eman behar dira: emakumeen eta gizonen parte-hartzea, adina, jarduerak egin diren herria eta datak eta ordu kopurua.<br><br>Jarduerek **ikuspegi intersekzionala** badute, azaldu nola txertatu den horietako bakoitzean.<br><br>Jarduera bakoitzari lotutako **fakturak** adierazi. | Explicar detalladamente cómo se ha desarrollado **cada una de las actividades** llevadas a cabo.<br><br>Se deben aportar por cada actividad **datos** sobre: la participación de mujeres y hombres, edad, localidad y fechas de realización y número de horas de duración.<br><br>En caso de que las actividades integren la **perspectiva interseccional**, explicar cómo se ha incorporado en cada una de ellas.<br><br>Señalar las **facturas** relacionadas con cada actividad. |

| | |
|---|---|
| **Proiektuaren eskabidean ezarritako jardueraren izena /** Nombre de la actividad establecida en la solicitud del proyecto (copiar): | |
| | |
| **Herria /** Localidad: | |
| **Burutatko ekintzaren data(k) /** Fecha(s) de realización: | |
| **Ordu kopurua /** Nº horas de duración: | |

| Adina/Edad | Emakumea/Mujer | Gizona/Hombre | Bestebatzuk/Otros | Guztira/Total |
|---|---|---|---|---|
| <15 | | | | |
| 14-15 | | | | |
| 16-19 | | | | |
| 20-29 | | | | |
| 30-39 | | | | |
| 40-49 | | | | |
| 50-64 | | | | |
| 65≤ | | | | |
| **GUZTIRA/TOTAL** | | | | |

| |
|---|
| **Azaldutako landutako edukiak, gauzatutako metodologia, erabilitako komunikazio- eta hedapen-metodoak eta, hala balego, garatutako alderdi berritzaileak /** Explicar los contenidos trabajados, la metodología llevada a cabo, los métodos de comunicación y difusión empleados y, si procede, los aspectos innovadores desarrollados: |
| |
| **Adierazi, hala badagokio, jardueraren garapenean ikuspegi intersekzionala nola txertatu den** / Incluir, si procede, información relativa a cómo se ha incorporado la perspectiva interseccional en el desarrollo de la actividad: |
| |
| **Adierazi, hala badagokio, jarduera garatzean norberaren bizitza, lana eta familia modu erantzukidean uztartzeko hartutako neurriak** / Explicar, si procede, las medidas para facilitar la conciliación corresponsable de la vida personal, laboral y familiar llevadas a cabo en el desarrollo de la actividad: |
| |
| **Azaldu, hala badagokio, irisgarritasun unibertsala bermatzeko hartutako neurriak** / Explicar, si procede, las medidas llevadas a cabo para garantizar la accesibilidad universal: |
| |
| **Jarduerari lotutako fakturak adierazi (zehaztu fakturaren zenbakia** eta **egiten duenaren izena)** / Señalar las facturas relacionadas con la actividad (indicar número de la factura y nombre de quien la emite): |
| |

***Koadro hau kopiatu eta itsatsi behar da. Proiektuan sartzen diren jarduerak adina koadro egin behar dira*** */ Hay que copiar y pegar este cuadro tantas veces como actividades se incluyan en el proyecto*

## 2. PROIEKTUAN PARTE HARTUTAKO PERTSONAK / PERSONAS PARTICIPANTES EN EL PROYECTO

| | |
|---|---|
| Jarduera bat baino gehiago egin badira, **proiektu osoan guztira parte hartu duten pertsona ezberdinen** kopuruari eta haien adinari buruzko informazio orokorra ematea. (Pertsona bakoitza behin bakarrik kontabilizatuko da).<br>Hala badagokio, parte-hartzaileen **profila** azaldu, **ikuspegi intersekzionaletik** eta kontuan hartuta emakumeen aniztasuna eta egoera zaurgarrian dauden kolektiboak. | En el caso de haber realizado más de una actividad, aportar información general sobre el número total de **personas diferentes que han participado en el conjunto del proyecto**, así como su edad. (Cada persona se contabilizará una sola vez).<br>Explicar, si procede, el **perfil** de las personas participantes desde la **perspectiva interseccional** y teniendo en cuenta la diversidad de mujeres y los colectivos que se encuentran en situación de mayor vulnerabilidad. |

**Parte hartu duten pertsonen kopurua, guztira** / Número total de personas que han participado

| Adina/Edad | Emakumea/Mujer | Gizona/Hombre | Bestebatzuk/Otros | Guztira/Total |
|---|---|---|---|---|
| <15 | | | | |
| 14-15 | | | | |
| 16-19 | | | | |
| 20-29 | | | | |
| 30-39 | | | | |
| 40-49 | | | | |
| 50-64 | | | | |
| 65≤ | | | | |
| **GUZTIRA/TOTAL** | | | | |

**Parte-hartzaileen profila** / Perfil de participantes

## 3. PROIEKTUAREN ETA LAN-PROZESUAREN BALORAZIO OROKORRA / VALORACIÓN GENERAL DEL PROYECTO Y DEL PROCESO DE TRABAJO

Proiektuaren eta lan-prozesuaren balorazio orokorra azaldu, honako hauen berri emanez: proiektuaren **alderdi positiboak eta negatiboak**; zailtasunak eta

Explicar la valoración global del proyecto y del proceso de trabajo, informando sobre: **aspectos positivos y negativos** del proyecto; dificultades y

| | |
|---|---|
| aukerak; proiektuaren deskribapenean planteatutako **helburuen** arabera lortutako **emaitzak.** Proiektuaren emaitzak neurtzeko **adierazleak** erabili badira (ebaluazioa eta/edo inpaktua; hala badagokio, bertaratzea eta gogobetetzea), adierazi lortutako emaitzak. Adierazi emaitzetan oinarrituta **etorkizuneko lan-ildoak** identifikatu diren. | oportunidades; **resultados** obtenidos de acuerdo con los **objetivos** que se plantearon en la descripción del proyecto. Si se han utilizado indicadores para medir los resultados del proyecto (indicadores de evaluación y/o de impacto, de asistencia, de satisfacción, etc.) indicar los resultados obtenidos. Explicar si en base a los resultados se han identificado **futuras líneas de trabajo**. |

## **4. PUBLIZITATEA ETA MATERIALA /** PUBLICIDAD Y MATERIALES

| | |
|---|---|
| Atal honetan, diruz lagundutako jarduueretan erabilitako publizitatea eta zabaltzeko edo argitaratzeko bestelako bitartekoak edo materialak erantsi beharko dira. Horietan, besteak beste, Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Berdintasunerako Zuzendaritza Nagusiaren lankidetza adierazi beharko da, logotipoa erantsita. | En este apartado, se deberá adjuntar la publicidad y otros medios o materiales de difusión, divulgación o publicación empleados en las actividades subvencionadas, en los que deberá constar la colaboración de la Diputación Foral de Bizkaia y de la Dirección General de Igualdad mediante la incorporación de su logotipo. |

## **5. IMPACTO DEL PROYECTO EN LA PROMOCIÓN DE LA IGUALDAD /** PROIEKTUAK EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNAREN SUSTAPENEAN IZAN DUEN ERAGINA

| | |
|---|---|
| Adierazi Emakumeen eta gizonen berdintasunaren sustapenean izan diren emaitzak | Identificar los resultados obtenidos en la promoción de la igualdad. |

## **6. AHALMEN ERALDATZAILEA ETA/EDO BERRIKUNTZAKOA /** POTENCIAL TRANSFORMADOR Y/O DE INNOVACIÓN.

| | |
|---|---|
| Ideia berriak, egiteko modu berriak eta metodologia eraldatzaileak berdintasunerako sektore estrategikoetan. | Nuevas ideas, nuevas formas de hacer y metodologías transformadoras en sectores estratégicos para la igualdad |

## 7. AZTERLANAK ETA IKERKETA JARDUERAK / ESTUDIOS Y TRABAJOS DE INVESTIGACIÓN

| | |
|---|---|
| Dirulaguntza azterlana edo ikerketa-jarduera baterako eman bada, azterlanaren ale bat eman beharko da. | En caso de haber sido subvencionado un trabajo o estudio de investigación, se deberá entregar un ejemplar de este. |

# MEMORIA EKONOMIKOA
MEMORIA ECONÓMICA

## 6. GASTUEN ZERRENDA / RELACIÓN DE GASTOS

Hurrengo zerrendan, aurrekontuan sartutako **proiektuaren kostu osoaren %100** justifikatu beharko da, oinarri arautzaileak eta dirulaguntzen deialdia onartzen dituen Dekretuaren 12. artikuluan aipatzen diren zeharkako kostuak izan ezik.

Proiektuaren kostu osoari egotzitako faktura guztiak taula honetan bezala **ordenatuta** erantsi beharko dira.

En la siguiente relación, se deberá justificar el **100% del coste total del proyecto** presupuestado, con la única excepción de los costes indirectos a los que se refiere el artículo 12 del Decreto por el que se aprueban las bases reguladoras y la convocatoria de subvenciones.

Todas las facturas imputadas al coste total del proyecto deberán adjuntarse **ordenadas** de la misma forma que en el siguiente cuadro.

**GASTUAK /** GASTOS:

| **Partida** / Partida | **Fakturaren eguna eta zenbakia /** Fecha y nº de factura | **Faktura eman duenaren IFZ/IFK eta izena /** NIF/CIF y nombre de quien emite la factura | **Zerbitzuaren edo hornidurraren deskripzio argia/** Descripción clara de la prestación del servicio o suministro | **Zenbateko osoa (zerga-oinarria + jasandako BEZa)/** Importe total (base imponible + IVA soportado) | **BFA-k emandako dirulaguntzari egotzitako zenbatekoa /** Importe imputado a la subvención concedida por la DFB | **Erakundearen diru sarrerei egotzitako zenbatekoa /** Importe imputado a ingresos de la entidad | **Ordainketa data/** Fecha de pago [1] | **Lotutako jarduera (J1, J2,…) /** Actividad relacionada (A1, A2,…) |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **1. Administrazio eta kudeaketa arloetako zeharkako kostuak /** Costes indirectos administrativos y de gestión | | | | | | | | |
| | | | | | | | | |
| | | | | | | | | |
| | | | | | | | | |
| | | | | | | | | |
| **2. Pertsonen edo zerbitzuen kontratazioa eta** | | | | | | | | |
| | | | | | | | | |

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **prestakuntza-jarduerak /** Contratación de personas o servicios y actividades formativas | | | | | | | | |
| **3. Erakundearen soldatapeko langileak (soilik programatutako jarduerak betetzearekin zuzenean lotuta daudenean) /** Personal propio asalariado o voluntario (sólo cuando estén directamente relacionados con la realización de las actividades programadas) | | | | | | | | |
| **4. Lokalen alokairua, cateringa eta/edo janari-gastuak /** Alquiler de locales y de catering y/o gastos de restauración | | | | | | | | |
| **6. Zabalkunderako eta publizitaterako tresnak /** Herramientas para difusión y publicidad | | | | | | | | |
| **7. Beste batzuk /** Otros | | | | | | | | |
| **GUZTIRA /** Total | | | | | | | | |

**OHARRAK /** NOTAS: [1] **Faktura ordaintzeko data ezin da jarduerak justifikatzeko dataz gerokoa izan /** La fecha del pago de la factura no puede ser posterior a la finalización del plazo para la justificación de las acciones.

# **FAKTURAK**
# FACTURAS

## **7. FAKTUREN ERREGISTROA /** REGISTRO DE FACTURAS

Jarraian, atal honetan, diruz lagundutako proiektuaren ondorioz egindako gastu guztien **faktura guztiak erantsi** beharko dira.

Faktura horiek eskaneatuta erantsi beharko dira, 6. puntuko koadroan erregistratzen diren **hurrenkera berean**.

A continuación, en este apartado, se deberán **adjuntar todas las facturas** de todos los gastos realizados con ocasión del proyecto subvencionado.

Estas facturas se deberán adjuntar escaneadas y siguiendo el **mismo orden** en el que se registran en el cuadro del punto 6.